

Uztarrria

Azpeitiko herri aldizkaria

PROFESIONAL HANDI BATEN AGURRA

Diego Garciak oraintxe utzi berri du maratokia,
eta UZTARRIAREkin egin du bere karreraren errepasoa

gazteria

13-17 urteko
gazteentzat
lokala habian
da

argazkilaritza

Lehiaketak
eta
erakusketak
nagusi



elkarrizketa

Dionisio Perez
«30 urtien ai
naiz naximentue
montatzen»

UZTARRIaren hiru ohar:

1. Bazkide izatea nahi baduzu, baina zure kontu korronteko zenbakia eman nahi ez baduzu, hemen daukazu UZTARRIaren zenbakia, bertan 3.000 pezeta sar ditza-zun: 2101 0029 28 0122349624 (Kutxa). Izen-abizenak eta helbidea eman.
2. Azpeititik kanpo bizi den senide edo lagun bat baduzu eta hark UZTARRIA jaso nahiko balu, bidali haren izen-abizenak helbide hauetara: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre, edo 227 posta kutxa Azpeitia. Bestela, behean ageri den tabernan utzi. Edota bestela, utzi mezua 15 03 58 telefono zenbakira deituta.
3. Eman beheko datuen txartelen bat UZTARRIAN oraindik harpidedun edo bazkide egin ez den herriko senide edo lagun bati. Edozein txokotan behar du UZTARRIAK!



uztarria

Azpeitiko herri aldizkaria

egin zaitez harpidedun ...doan!

Bidali hona datuak: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre, edo 227 posta kutxa Azpeitia. Edo Zuhatz tabernako kaxara bota.

Izen-abizenak (etxetik batena):.....

Helbidea:

...edo, lagundu nahi baduzu, bazkide izan zaitezke **urtean 3.000 pezeta soilik!**

Bidali hona datuak: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre, edo 227 posta kutxa Azpeitia. Edo Zuhatz tabernako kaxara bota.

Izena eta bi abizen:

Helbidea:

NAN (DNI):..... Sinadura:

Kontu korronteko zenbakia (20 digito):

«Euskara deiturretan, erdara ezpainetan» (Atsotitza)

ale honetan...

4-5-6: Alaitz Olai-
zola, Jabier Altu-
na, Asier Agiria-
noren iritziak, An-
doni Salegiren
marrazkia...

8-9: Udala.
Antzerki
Topaketen sari
banaketa eta jai
giroa
Santotomasetan.

13: Euskal
Herritarrokek
etxebizitza
hutsen eskualde-
ko kanpainari
ekingo dio.

14-15-16: Ia
prest dago 13-17
urte bitarteko
gazteentzako
lokala.



17: Kontseiluak
Azpeitia hautatu
du, herrietako
plangintzarako.

18-19-20-21-22:
Elkarrietzeta.
Diego Garciari,
profesionalki
bere agurra dela
eta.



24-25: Komuni-
kabideak.
Txalaparta
irritiak bost
urte beteko ditu
aurten.

28-29: Argazkila-
ritza. Azpeitia
iruditzen, Mendiko
Rallya eta J.R.
Larrañagaren
erakusketa.



34: Elkarrietzeta.
Dionisio Perez
Zubiaurre
«Naximentuen
planue burun
daukeu»

AKULUA

Zeruari begira



**Fernando
Morillo**

Idazlea

Lauzpabost lagun geun-
den, izarrei begira eta
ametsak zenbatzen.
Laino triste bat zebilen zeruan,
galduta.
«Neska batekin irteten hasi
nauk», aitortu zuen batek.
«Joño, eta?». Oso gustura
omen zegoen. Asko gustatzen
zitzaion, ezin hobeto konpon-
tzen ziren biak... eta abar eta
abar. «Orduan?», harritu ginen,
bere tonua ez baitzen alaiegia.
Serio jarri zen bat-batean:
«Maitasuna benetan existitzen
dela uste al duzue?». Barre egin
genuen. Berehala isildu ginen,
ordea, egitan ari zela konturatu
baikinen. Ez zuen inork hitzik
egin.
Uste dut ohartu ginela, zenbait
galdera erantzuteko ausardia
galduta genuela jada. Telebistei,
fakturei, *modernitateei*, gure
ametsak lapurtzen utzi geniela.
Uste dut ohartu ginela, hori, hil-
tzea bezala zela. Eta mugitzen
ez baginen, berdin jarraituko
genuela. Noraezean. Zeruan
zebilen laino triste hura bezala.



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako
Foru Aldundiak diruz lagunduriko
aldizkaria

uztarria

Argitaratzailea: Uztarria Kultur
Kordinadora
Egoitza: Julian Elorza 4, 2. ezkerre;
Telefonoa: 150358. Faxe: bera
Posta kutxa: 227, Azpeitia
Publizitatea: Tel: 150358
Posta elektronikoa:
uztarria@topagunea.com
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.500 ale
Lege gordailua: AS / 6 / 08255 / 1999

UZTARRIAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizuna

amuko Zubitik



Iltzea sartuko bada,...

Alaitz Olaizola



Udazkena badenez, antzerki topaketak ere badira beraz, urtero bezalaxe. Aspalditik soma zitekeen topaketetan halako itxuraldaketa nabaria, alegia, ez garela hoberrantz egiteko gai izan. Ez dut uste hala pentsatzen duen bakararra naizenik.

Ene kasuan, hamar urte-tik honako aldaketetat ari naiz. Orduan izan nuen topaketetara pixkanaka hurbiltzen hasteko aukera. Orduan, oraindik, giroa soma zitekeen, *topaketa* giroaz ari naiz. Klean Sepastopoleko titiriteroak haur eta haur ez ginenentzako saioak egiten, oste-

gunez emanaldiak, azken jaia...

Niretzako jada ez da berdina. Hilabeteetan luzatu gara, ez emanaldietan. Profesionaletan luzitu gara, eta ez amateurretan. Eta hementxe dago kokka. Norbaitek esan dezake, profionaletan kalitatea hobetu dela, eta ez nago konforme. Profesionalak ez du kalitatea esan nahi, ezta ikuslego segurua ere. Nirea ez da talde profesionalei zuzenduriko kritika, bakoitzari berea eman behar baitzaio. Nirea antzerki amateurrari eskainitako arreta eskaxaren erreibindikazioa baino ez

da. Geroz eta gutxiago dira taularatzen diren lan amateurak, eta aurki batere ez. Topaketa hauek, halako taldeentzako aukera behar lukete izan eta ez dira, batzuk baiezkotan badaude ere. Txanpon falta denik ere ez dut uste; agian, banatzeko orduan kontuak gaizki eginak daude.

Hausnarketa serio bat egiteko garaia bada. Batzuentzako ofizioa dena, besteen afizioa da; eta bigarren hori bultzatu ezean, iraganean hitz egingen hasi beharko dugu.

«Iltzea sartuko bada, buruan jo behar», bai horixe.

gutunak

Gezurra zer den

Gezur: Egiaren kontra ohar-tuki (jakinaren gaineran) esaten den gauza.

Unai Lizaso, EHko zinegotzia, bestek sinatutako gutun baten erantzule egin du Azpeitiko EAko zinegotzi taldeak berriki. Salaketa gogorak egiten zaizkio arrazoirik azaldu gabe.

EAko zinegotziek Unai Lizasok gutuna sinatu zuten gazteei informazioa eman izana leporatzen diote. Horretaz gainera, «gezurrezko informazioa» berak sortua zela ere esaten dute beste askoren artean.

Aipatzen dute, baita ere, Kaito Telebistaren inguruan egin ziren zentsura salaketek ez dutela funtsik, Kaito Telebistak argitu duelako zertan den auzi

hori.

Aurrena adierazi nahi dugu, gai honen inguruan, ez Unai Lizasok, ez EHko ezein zinegotzik ez dugu la gezurrik esan.

Erraz eta arin mintzo dira EAko zinegotziak. Aspaldi ikasia dugu beldurra zer den, eta badakigu agintek ematen duen indarra trakets erabiliz komunikabideak ekonomikoki itotzea zer den.

Ez da denbora asko Kaito Telebista prentsaurreko eta aurkezpenetara joateko zuen ohitura aldatzen hasi dela. Seguru gaude Kaito Telebistak udaletxean bere proiektua aurkeztu eta bertatik etor dakiokeen diru laguntzaren zain dagoen bitartean nahi adina libreezin duela jokatu. Eta EAko udal taldeak zerikusi zuzena du

eSaldia

«Ernest Lluch pasa den abuztuan, hiru bat egunetan izan zen Loiolako liburutegian. Gizon zintzoa, bizkorra, adimentsua eta langilea zen».

Patxi Olariaga, Loiolako liburutegiko arduraduna.

(Deia, 2000-11-23)

horretan, UZTARRIA aldizkariari udaletik ezarri zitzaizkion baldintza lotsagarrietan ardura zuzena duen bezalaxe.

Norbere gabeziak besteren lepotik errenditu nahi izatea errukarria iruditzen zaigu. EAko zinegotzi taldea EAJren alkauete lana bereganatzen ari da, beretzat hartuz ezker abertzalearen kontra-

ko txoke-indar lana. Beldondaiela! Horrela jokatu-ta jasotako mesedeak ordaintzea eta zerbaiten etekina eskuratzea esperorokodute noski.

Guk ere norbaiti probetxuskoa gertatuko zaiola koan jarri dugu gezur hitzaren esanahia idazki honen buruan. Egia zer den ez al diogu inori gogora ekarri beharko!

Azpeitiko EHko zinegotziak

Oharra: UZTARRIA aldizkariako hamabigarren alean, azaroko alean. Gaia emanda atalean, bertsoa Angel Larrañagak idatzia zela esaten zen, ordea, bertsoa Andoni Larrañagak idatzia izan zela argitu nahi du UZTARRIA Herri Aldizkariak.

UZTARRIAREN oharra: gutunak, ahal dela, motzak izan behar dute, bestela UZTARRIAK mozteko ahalmena izango du. Kartak bidali hona: UZTARRIA, 227 posta kutxa, Azpeitia. Edo, UZTARRIA, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre. Edo, posta elektronikoki honetara: uztarria@topagunea.com

azketako ura



Omenaldiak

Jabier
Altuna



Azken egun hauetan omenaldiei buruz dezente entzun eta irakurri dut: musika banda-ko bi lagunei, Diego Garcia-ri...

Azken aste buruan, Franco hil dela hogeitabost urte bete diren horrekin, errege-ari egin dizkioten elkarrizketak eta artikulatuak irakurri ditut. Esan beharrik ez dago, ipurdi garbitze asmo haundi bat ikusten zen. Izu-garrizko lana egin duela, benetan maite duela herria, sakrifizioa gora, ez dakit zer behera. Ez da nire asmoa hemen eta orain hogeitabost urte hauetan egin duena aipatzea edo aztertzea,

baina entzun nuen esaldi batek gauza batzuek ekarri dizkit burura.

Herriaren alde lana egitea dela bere eginkizunik garantzitsuena edo horrelako zerbait esan zuen; komentariak, bere aldetik 23-F famatua hartan egin zuenak demokrazia salbatu zuela zioen, eta ez dugula inoiz apreziatuko erregeak egin zuena esan zuen, eta horregatik gure betiko esker beroa merezi duela. Honekin ere ados nago; hau da, beste zerbait esan edo egin izan balu gau hartan gauzak beste era batetara aterako ziren.

Baina nire galdera hau da:

beste zerbait egin al zezakeen? ez al zen bere obligazioa egin zuena egitea? baiezkoan nago, eta beraz, bere lana egin duen norbaitek, bere beharrekin betetzen duen norbaitek merezi al du goraipen berezirik?

Afari bat egiteko orduan edozein aitzakia da ona, omenaldia honi, ez dakit zer hari; afaria egin behar bada egin dezagun. Baina omenaldia batipat, gogo gutxiagorekin batzutan edo gehiagorekin, bere lanetik kanpo besteengatik zerbait egiten dutenek merezi dute. Bandako bi lagun horiek bereziki.

otso beltz

Andoni Salegi



gaia emanda

Diego Garcia

Punta puntako laisterkaria, bertsotan onenan pare. Urte askotan maratoian hi izan haiz denen errege. Zenbat podio zapaldu duan, ez duk jakingo heuk ere. Nahiko fama ta ohore, orain utzi eta hobe. Negozioa martxan dadukak, bezero ugarin jabe, bizitza lasai-lasai hartzeko korrika ibili gabe.

Gizon bizkorren zerrenda hortan daukagu Diego Garcia. Kilometroak azkar egiten du aparteko grazia. Bere pausoa ta ibilkera dugu oso berezia, erbia bezain bizia ta sufritzen ikasia. nahiz izan proba laburra edo izan maratoi luzia beti eman du bere gorputzak eman zezakeen guzia.

Joxe Luis Gorrotxategi

Amateurrak antzerki titiriteroak

Gaur egun Euskadiko Euskal Antzerki Topaketak XVIII.en edizioa betetzen dute, eta aurten Gabriel Aresti bilbotarrari eskeintzen zaio omenaldia. Azaroaren 4an hasi ziren eta abenduaren 21erarte izango ditugu ikusgai Azpeitian hainbat antzerki lan.

Udalak topaketei buruz ateratako programari begiradaxo bat bota ezkerro, erraz atzeman daiteke aurtengoan profesionalak direla nagusi. Hamar talde profesionalen antzezlanak izango ditugu ikusgai; horietatik sei estreinaldiak noski, etanola ez, ezin ahaztu, eskola antzerkia. Eskola antzerkiak badu, nere ustez funtzio garrantzitsu bat Euskal Antzerki Topaketetan. Batetik ikastoletako antzerkia bultzatzeko balio du, hau da, haurrek euren ikastola eta ikastetxeetan, ikastorduz kanpo, antzerki eskolatan egindako lanari eskenatoki bat eskaintzen bait zaio. Balore berriak, aktore gazteak, sortarazteko ere balio du ene usteetan. Bestetik, haurrak eta gaztetxoak antzerki zaletasunera bultzatzeko ere balio dute Eskola Topaketek. Hala nola, haur eta gaztetxoek zuzendutako antzezlan profesionalak gehitzea topaketen egitaruari positiboa deritzot.

1983.en urtean sortu ziren lehendabizikoz euskal antzerki topaketak, eta herrian gainera, Azpeitian. Euskal Antzerki topaketek, euskara sendotzea zuen helburu nagusi-



tzat. Urteak pasa ahala, helburuak gehituz joan dira. Ez naiz guztiak aipatzen hasiko, baina, azpimarratu nahi dudana honako helburu hau da: Euskarazko antzerki amateurren eskenatoki berriak eskeintzea.

Aipatutako azken helburu hau kolokan jartzen dela iruditzen zait, batez ere azken urteotan. Antzerki amateurra itzalpean eta lekuz kanpo gelditzen ari da Topaketa hauetan; zerbait susmagarria gertatzen ari ote denaren pentsamendua datorkio bati burura.

Antzerkigileok badakigu antzerki obra bat aurrera eramatea zaila dela, hainbat lan egin behar dela horretarako: obra

aukeraketa egin edo antzezlan bera idatzi, eta diru aldeetik zer esanik ez. Amateur taldeei, Azpeitiko udalak Azpeitian euren antzeleraren estreinaldia egiteagatik ekonomi aldetik dirulaguntza ematen die.

Nik hamaika galdera darabilzkit gaur egungo Euskadiko Euskal Antzerki topaketetan murgilduta gauden egun hauetan:

Non gelditu dira aurten talde amateurrek? Eta herriko, bi antzerki taldeak? Zer gertatzen da hauekin? Zer dio E.A.T.A.E.k (Euskal Antzerki Talde Amateurren Elkartek)?

Udalak talde hauekiko interes gutxi azaltzen al du?

PROGRAMA

Topaketei buruz ateratako programari begiradaxo bat bota ezkerro, erraz atzeman daiteke aurtengoan profesionalak direla nagusi.

ESKOLA ANTZERKIA

Antzerki Topaketetan, eskola antzerkiak betetzen du bere funtzioa. Ikastoletako antzerkia eta antzerki zaletasuna bultzatzeko.

AMATEURRA

Antzerki amateur itzalpean eta lekuz kanpo gelditzen ari da Topaketa hauetan. Hau dela eta, zerbaiten susmoa datorkio bati burura.

Hasiera batean Topaketak antzerki zaleon bilgune ziren, zertan bilakatu dira gaur egun?

Euskal Herriko antzerki talde amateurrek ez al dute Azpeitian estreinatzeke obrarik?

Dakidan gauza bakarra, urriaren amaieran Elgoibarren antzerki amateurren topagunea izan dela udaletxearen inolako laguntzarik gabe.

Azpeitiko Euskal Antzerki topaketekin zer gertatuko den ideia handirik ez dut, baina arazo baten aurrean gaudela aspaldidanik dakit.

Asier Agiriano

Uztarrriaren eskeintze katxarrue:

Uztarrria herri aldizkariko
bazkide izanez gero (urtean 3.000
pezeta bakarrik), doan jasoko
dituzu Joxe Takoloren, Angel
Otaegiren, Imanol Eliasen
eta Joxe Lizasoren
liburuxka biografikoak
(aldizkaria ere jasoko duzu hilero).

NOLA EGIN BAZKIDE?

BETE BEHARREKO DATUAK:

Izena eta bi abizen:

.....

Helbidea:

.....

Kontu korronteko 20 zenbaki:

.....

(Zure kontu korronteko zenbakia eman nahi ez baduzu, hemen daukazu Uztarrriaren zenbakia, bertan 3.000 pezeta sar ditzazun: 2101 0029 28 0122349624, Kutxa. Izen-abizenak eta helbidea eman).

DATUAK HELARAZTEKO AUKERAK:

1. 227 posta kutxa Azpeitia helbidera bidali.
2. Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre helbidera bidali.
3. Zuhatz tabernan (Erdi Kalea) dagoen kaxan sartu.
4. 943 - 15 03 58 zenbakira deitu edo fax horretara bidali.

Harpidedun izateko aukera: Sosik ordaindu gabe hilero Uztarrria herri aldizkaria jasotzeko aukera ere badaukazu; horretarako eman zure izen-abizenak eta helbidea. Kasu horretan, ordea, liburu biografikoak ez dituzu doan jasoko. Animatu eta diruz ere lagundu Uztarrriaren proiektua.

Lau azpeitiar ezagunen liburu biografikoak

2001. urtean

JOXE TAKOLO

Mendizaletasun-
ean aitzinda-
ria izan da.



Joan den abuztuan hil zen,
ezustean. Enekoitz Esnaolak
egingo du haren biografia.

ANGEL OTAEGI

Frankismoaren
kontrako ikur
bihurtu zen



Otaegi, 1975ean afusilatu
egin zutelako. Liburuxkaren
egilea: Iban Arregi.

2002. urtean

IMANOL ELIAS

Historialaria,
antzerkiegilea,
idazlea, alkate



ohia... Orain ere lanean
gogor dihardu, idazten.
Egilea: Mailo Oiarzabal.

JOXE LIZASO

Bertsolari
beterano



ezaguneneta-
koa da, eta oraindik kantari
dabil. Asko bizitako gizona
da. Egilea: Xabier Euzkitze.

Uztarrriaren oharra: Liburu(k) egiteko zurekin ez bagara harremanetan jarri eta zerbait aporta badezakezu (argazkiak, kontuak...), deitu mesedez 943 - 15 03 58 telefono zenbakira.

Antzerki Topaketen sari banaketa Santo Tomas egunean

Aurten ere ikuslegoek sarituko dute antzezlanik onena

► Abenduaren 2lean, eguerdiko 12:30etan banatuko dira Euskadiko Euskal Antzerki Topaketen sariak udaletxean ► Ikuslegoaren saria, Euskal Antzerki Bultzatzaileari saria eta Irrati Lehiaketarena, emango dira ► Aurtengo antzezlanen kalitatea oso ona izan da.

Udala

Pasa den azaroan eman zitzaion hasiera Euskadiko Euskal Antzerki Topaketei. Dagoeneko, hainbat antzezlan ikusteko aukera izan dugu, eta orainartean ikusi dugunaren arabera, zera azpimarratu daiteke: alde batetik, Antzerki Talde ezberdinek aurkezturiko antzezlanen kalitatea; eta bestetik, Topaketek izan duten harrera ona.

Aurtengo antzezlanen kalitatea hain ona izanik, ez da batere erraza izango irabazleak aukeratzea. Dena dela, ikuslegoak izango du azken hitza, ikuslegoaren ardura baita antzezlanik onena saritzea. Larunbatero, Zelaitxo antzokira gerturatzen direnek, bertan jasotzen duten txartelean adierazten dute, ikusi berri duten antzezlanari buruzko norberaren iritzia. Topaketetan parte hartu duten antzezlan guztietan jasotzen diren txartel horietan oinarrituta, batez besteko bat ateratzen da. Jakina, batez besteko altuena lortu duen taldeak eskuratuko du saria. Ikuslearen saria deritzon honetan, 100.000 pezetako bi sari banatzen dira: bata antzerki amateur taldeen-



Antzerki topaketen aurkezpeneko une bat.

INAKI AGIRRE

tzat; bestea berriz, talde profesionalentzat.

Ohi bezala, aurten ere Euskal Antzerki Bultzatzaileari Saria, banatuko da. Azpeitiko Topaketak euskal antzerkia bultzatzeko lana egin duen pertsona, erakunde eta abarren lana aitortu nahi du aipamen berezi

Aurtengo antzezlanen

kalitatea hain ona

izanik, ez da batere

erraza izango

irabazleak aukeratzea;

dena dela,

ikuslegoaren aukera

da hori

honekin. Ezin gara, bestalde, Irrati lehiaketa sariarekin ahaztu. Gabriel Aresti idazlearen bizitza eta lana gogotik ikasi behar izan dute lehiaketara aurkeztu diren DBHI 1. eta 2. zikloko ikasleek. Ahalegin berezi hori saritu nahiean, DBHko 1. zikloko ikasleentzat bi sari banatuko dira. Lehenengo saria lortzen dutenek 100.000 pezeta jasoko dituzte, eta 2. sariak berriz 50.000 pezeta banatuko ditu. Beste horrenbeste gertatuko da DBH 2. ziklokoko gazteekin.

Hauek guztiak dira banatuko diren sariak. Baina garrantzitsuena oraindik ez dakigu, nork eskuratuko dituen, alegia. Dena dela, oraingoz ezin dugu galdera hau erantzun, horretarako santotomasetaraino itxaron beharko baitugu. ■

Santotomasetan giro jatorra!

Plazan eta inguruetan txorixo postuak izango dira nagusi

► **Abenduaren 21ean ospatu-**ko da **Azpeitian Santotomas** eguna ► **Txorixoa, taloa eta sagardoa ezinbestekoak dira jai honetan** ► **Lore, fruta eta barazki lehiaketa egingo da urtero, ohi bezala.**

Udala

Santotomasetako egitaraua, berriro ere, ekintza eta ekitaldiz beteta datorrigu. Besteak beste, hor daude pilota partiduak, ttunturroen kalejira, punta-puntako bertsolariak enparantza nagusian, barazki, fruta eta lore lehiaketa, rock kontzertuak, eta nola ez, jada tradizio bilakatu diren txosnak.

Aipamen berezia merezi dute, hain zuzen ere, egun batez azpeitiko enparantza nagusia

Txorixo postuak jartzeko izen-ematea

Plazan eta inguruetan jarriko diren txorixo postuetarako eta lore, fruitu eta barazki lehiaketa eta erakusketa postuak jartzeko izen-emate epea ireki da. **Abenduaren 12a arte** irekita dago txorixo postuak jartzeko epea, izena ematen dutenen arteko zozketa **abenduaren 14an egingo da.** Lore fruitu eta barazki lehiaketarako, berriz, izen-emate epea **abenduaren 15an amaituko da.** Izena emateko **udaletxera jo beharko da edota 157200 telefono zenbakira deitu beharko da.**

itxuraldatzen duten herriko talde, eskola eta abarrek prestatzen dituzten txosna horiek. Egun, ezin baitira ulertu txosnek saltzen dizkiguten talo, txistorra eta sagardo gabeko Santotomasak.

Baserri munduaren inguruan sortu zen santotomasetako feria, eta indartuz joan da pixkanaka, gaur ezagutzen dugun baserriar nahiz kaletarrek ospatzen duten festa herrikoia izatera heldu arte. Baina funtsean, beti mantendu izan du bere nortasun eta izaera bereziaren adierazle den euskal kutsua, aipatutako egitarauan ikus daitekeen moduan.

Beraz, azpeitiarrok, heldu da ordua: baserriar jantziak astindu, hartu txistorra eta taloa esku batean, sagardoz beteriko edalontzia bestean, eta goza ditza-zuela 2000. urteko santotomasa!

Zinema haur eta helduentzat gabonetan

Gabonetako oporraldiekin batera hasten da, Azpeitiko Udalak eta Zineklubak haur eta helduentzako Soreasu aretoan antolatzen duten zine zikloa. Haurren emanaldiak arratsaldeko 17:00 izango dira eta 100 pezetako salneurri sinbolikoa izango dute. Helduen emanaldiak

aldiz, gaueko 21:00etan izango dira eta 400 pezeta ordaindu beharko dira emanaldi bakoitzean. Urte dezente igaro dira jada, gabonetako zine emanaldiak hasi zirenetik. Zentzu honetan, Azpeitiko Udalaren asmoa alde batetik, haur nahiz gaztetxoek aisialdia kultur

ekitaldiekin betetzea da; bestetik, azken urteetan batipat, haurrentzat zuzenduriko zinemaren beherakada ikusirik, Azpeitian, haurrei zuzendutako zinema indartzea nahi izan da.


Helduentzako zinemari dagokionez, Zineklub zaleak, gabonetan ia egunero filmeren bat ikusi ahal izango dute. Gabonetan ere, zirkuito komertzialetik at dauden kalitatezko filmeak ikusteko aukera izango dute Soreasu aretora gerturatzeko direnek.



Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 15 16 40

Ekain
ALBAIT ARI KLINIKA



- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Emparan kalea, 30
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net



ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

motxien

Abenduan Mendi proiektzioak izango dira Lagun Onak M.B.k antolatuta

Abenduak 12, 13 eta 14an, Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta, mendi proiektzioen emanaldiak izango dira, herriko zenbait mendizaleen eskutik. Beñat Arrue, Jon Beloki eta Benantxio Iruretak Peruko mendien eta Nepaleko mendizerra urrunen berri emango dute. Emanaldi guztiak Lagun Onak M.B.ren Eliz-Kaleko lokaletan izango dira, 20:30etan.

Obrak Alde Zaharrean Euskaltelen kableatua eta gasa sartzeko

Pasa den hilabetean, azaroan, Alde Zaharreko kaleetan hainbat obra egin dira. Kaleak altxatu eta gasa sartzearekin batera, Euskalteko kableak ere sartu dituzte Alde Zaharreko kaleetan, Eliz kalean, Erdi kalean eta Enparan kalean. Obrak hasi ahala, kaleak itxi egin dira autoentzako, eguneko zenbait ordutarako. Aurrera begira ere, hainbat obra egiteko asmoa dago.



erretratutan



ION ARANBURU

Azken asteotan hitzaldiak batzokian

Azaroaren 9an Jose Juan Gonzalez de Txabarri izan zen hizlari batzokian, EAJ-PNVk gonbidatuta. Hitzaldiko gaia «EAJ-PNVk gaur egun Madrilan duen egoera politikoa» izan zen. Bertan, jende multzoa bildu zen. Aurreko hitzaldian Xabier Arzalluz

EBBko presidentea izan zen hizlari, eta hurrengo hitzaldira Josu Jon Imaz etorriko da.

Pasa den azaroaren 8an, Euskal Herrian Euskaraz taldeak deituta, Justizia Administrazioan euskaraz jasaten duen egoera salatu zen. Arratsaldean, kontzentrazioa egin zuten Euskal Herrian Euskaraz taldekoek epaitegi aurrean, eta epaitegi-ko ate nagusia ere itxi zuten, hura euskalduntzearen alde.

Justizia administratiboa euskalduntzearen alde



JAIONE UNANUE

Aldayk bigarren liburua kaleratu du

Azaroaren 8an, Enparanen Xabier Alday idazle azpeitiarrak, Susa literatura argitaletxearekin, hamairu

ipuinez osatu-tako *Bazterrekoak* liburua aurkeztu zuen. Aldayren bigarren liburua da *Bazterrekoak*, narratiban ordea aurrea. Orain zazpi urte, 1993an, argitaratu zuen bere lehen poema liburua, *Bala zeru urdina*. Gorka Arreseren, Susako arduradunaren

aburuz, ipuin guztietan «bi obsesio edo gai daude errepikatuak. Ipuin guztietan autoak edota gurdiak ageri dira. Bestetik, bikoteen arteko harreman zailak, hausturak ageri dira».



NEREA URANGA

Giza katea euskal presoen eskubideen alde

Euskal presoen eskubideen aldeko Azkoitia-Azpeitia giza-katea

egin zen pasa den azaroaren 25ean. Giza-katean 500 pertsona inguruk parte hartu zuten; ondotik, azoka plazan sagardo txotxa egin zen. Egun berean, Gazte Ekimenak deituta, herriko gazte koadri- len partehar-

orduko baraualdia egin zuten.



INAKI URANGA

motxean

Egun bakarrean gastatzeko miloi bat pezeta zozketatuko dute Alde Zaharreko merkatariek

Alde Zaharreko Merkatarien Elkartek miloi bat pezeta zozketatuko du, egun bakarrean gastatzeko herriko dendetan. Zozketa txartelak Alde Zaharreko dendetan banatuko dira abenduan zehar. Milioiaren zozketa berriz, gabon inguruko jaietan egingo dute, urtarrilaren hasieran. Zozketan saritua gertatzen denak, egun bakarrean gastatu behar du miloi pezeta; horretarako kotxe dotore bat ere jarriko dute Alde Zaharra Merkatarien Elkartekoek, eta kotxe horretan ibiliko da erosketak egiten, dendaz-denda, egun guztian zehar.

2001eko agenda Latinoamerikarra salgai herriko taberna eta dendetan

Oscar Romero batzordearen 2001eko agenda latinoamerikarra salgai dago Azpeitiko zenbait taberna eta dendetan. Salmentatik ateratako dirua Latinoamerikako egitasmo desberdinetarako da; 2001 agendatik ateratako dirua, eskolak eraikitzeko izango da. Mila pezeta besterik ez du balio agendak, eta saltzen jarri dutenak aipatutako agenda erostea eskertzen dute.

motxien

VIII. Jaiotza Erakusketa antolatu du Betharram Ikastetxeak

Aurten ere, Gabon jaietarako jaiotza erakusketa antolatu du Betharram ikastetxeak. Erakusketa Betharrametako elizan izango da. Abenduaren 22an irekiko dira erakusketako ateak, eta urtarrilaren 4a arte izango da zabalik, 17:00etatik 19:00ak arte. Abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a jai egunak izanik, itxita izango da erakusketak.

Iban Otaegik bigarren mailako lau t'erdiko finala jokatu du, hilaren 8an

Iban Otaegi pilotari azpeitiarrak arrakasta handia lortu du, eskuz banakako bigarren mailako finala jokatu du duelako; Enrike Galarza, *Galarza V.a*-ren kontra, hain zuzen ere. Finala hilaren 8an izango da, Eibarren (Gipuzkoa), Astelena frontoian.

Jon Agirre bigarren izan zen Jaizkibelen

Jon Agirre auto gidari azpeitiarra, bigarren sailkatu zen Jaizkibelgo igoeran, Aitor Zabaletaren atzetik. Bestalde, Jose Francisco Labaka, gidari azpeitiarra hamalau garren postuan sailkatu zen.

erretratutan

Geriatrikoko laguntzaileen diploma banaketa



NEREA URANGA

Pasa den azaroaren 22an, Udaletxeko areto nagusian, geriatriako laguntzaileen eta etxez etxeko laguntzaileen 2. kurtsoko diplomaren banaketa egin zen. Kurtsoa udalak antolatu zuen, Gizartekintzaren laguntzarekin, eta 20 pertsonak burutu zuten kurtsoa.

Lizarreko langileen egoera ezbaian



NEREA URANGA

Pasa den azaroaren

10an, Lizar egur tailerreko langileek konzentrazioa burutu zuten Enparantza Nagusian, euren lanpostuen egoera argitzeko eskatuz, bertan izan zen Rafa Diez LAB-eko kidea ere. Urriaren 9az gero, lanik gabe aurkitzen dira langileak eta uneotan, Lizar egur tailerra porrot emanda dago. Langileen egoera ezbaian dago, lantegiko buruekin elkarriketetan ari badira ere.

EHk etxebizitzen eskualdeko kanpaina martxan jarri du

Etxebizitzaren plangintza osoa egiteko eskatuko du EHk

► Abenduaren hasieran etxe hutsen inguruko kanpainari ekingo dio EHk ► Informazioa zabaltzeaz gain, udal-
txean mozio bat sartuko du, plangintza oso bat eskatuz
► Helburua kontzientziazioa eta sentsibilizazioa lortzea da.

Nerea Uranga

Etxe hutsen inguruko kanpaina Urola-Kostako eskualde mailan egingo du Euskal Herriarrokek, guztira hamaika herritan, Oriotik hasi eta Azkoitira bitarteko herri guztietan.

Uda aurretik hasi ziren herri guztietako zinegotziak biltzen, eta bileretan eskualde mailan herrietan ematen diren arazoan artean «lehentasunak» zehaztu zituzten, EHko Miren Odriozola zinegotziaren hitzetan: «Etxebizitzaren gaiari eman genion lehentasuna beste gai batzuren artean, baina gaia hain zabala da, etxe hutsak, lurrak, etxebizitza sozialak... Lehenengo etxebizitza hutsen gaia lantzen hastea erabaki genuen».

Herriz-herri aztertu dute, herri bakoitzeko egoera, biztanleria, etxebizitza kopurua eta etxe hutsen kopurua kontuan hartuz. Gero, herri bakoitzean, auzo-
auzo eta kalez-kale datuak bildu dituzte. Bildutako datuak herrian zabaltzeko asmotan dira; kanpainaren helburuak «informazioa pasatzea eta, kontzientziazioa eta sentsibilizazioa» dira EHkoen hitzetan.

Udaletxean ere gai honen inguruan mozio bat sartzeko asmoa du EHk, «plangintza oso

bat» egiteko eskatuz. «Ikerketa» martxan jarri eta 2001eko aurrekontuetarako «diru partida bideratzea» eskatuko dituzte. «Zentso bat egitea eskatuko dugu, aztertuz etxe bakoitza ze egoeratan dagoen. Etxe hutsen jabeekin hitz egin, hutsik dauden etxeak saltzera edota alokatzera atera ditzaten. Eta etxe hutsak tasa edo zergabidez grabatuta gelditu daitezzen eskatzeko asmotan gara».

EHren asmoa aurrera begira herrian plan estrategiko oso bat egitea da: «Etxe berri pila bat egiten ari gara, etxe huts pila bat dauzkagunean. Hainbat nekazal lur, lur urbanistiko bihurtuz. Eta etxebizitzen prezioak ere, handiak dira». ■



Enparan kalea.

Datu nagusiak:

1.480 etxe hutsik Azpeitian

Euskal Herriarrok alderdiak etxe hutsen inguruko kanpainan kale-ratutako datuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1999ko abenduaren 31n bildutakoak dira.

Hurrengoak dira:

AZPEITIAN ◯ Urola-Kosta eskualdean, batez beste, etxebizitzetatik % 28 hutsik daude. Azpeitian guztira 5.781 etxebizitza daude, eta hauetatik 1.478 etxe hutsik daude, %25koa da Azpeitian etxe hutsen kopurua.

ALDE ZAHARRA ◯ Alde Zaharra da hirigunean etxe huts gehien biltzen den gunea, alde handiarekin gainera. Alde Zaharreko etxe huts kopurua handia da, batez beste %40 etxe hutsik daude. Etxe huts kopuru


handiena Erdi Kanean (%49) dago, ondoren Enparantza Nagusian (%48) eta atzetik Eliz kanean (%47). Etxe huts gutxien, Alde Zaharrean, Perez Arregi plazan (%29) daude.

AUZOAK ◯ Herriko auzoetan, batez beste, %29 etxebizitza hutsik daude. **Oñatz** da etxebizitza huts gehien dituen auzoa, Eizagirre auzo-arekin batera, %35. Etxebizitza huts gutxien dituen auzoa berriz, Izarraitz auzoa da. **Urrestillan** hutsik dauden etxebizitza kopurua %40koa da. Nuarben berriz, hamarretik zazpi etxe hutsik daude.

BASERRIAK ◯ Batez beste, Azpeitian 545 baserri daude, eta baserri horietatik %29 hutsik daude. Hau da, gutxi gora behera, 158 baserrian ez da inor bizi.

la prest dago 13 eta 17 urte bitarteko gazteentzako lokala

Udala 17 urtetik gorakoen beharrak ere aztertzen ari da



Damaso auzoan kokatuko da lokal berria, *Loiola 91* moduan ezagutzen dugun eraikuntzan.

NEREA URANGA

Azpeitiko Udalak 13 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako lokala ireki-ko du, seguruenera hil honetan bertan. Damaso auzoko lokal bat ari dira egokitzen, *Loiola 91* izenez ezagutzen dugun eraikuntzan dagoen lokal bat.

Udaleko arduradunek ez dute egun batetik bestera hartu lokal hori irekitzeko erabakia. Herriko gazteen egoera aztertzeko Siadeco enpresa kontratatu zuten, eta ikerketa horretan oinarrituta, gazteentzako baliabideak jartzen ari dira. Neurri horietatik lehenengoa izan zen, hain justu, 6tik 12 urte bitartekoentzat ludoteka bat irekitzea, Santiago kalean. Eta oraingoa

► **Lokalak 340 metro koadro ditu, eta Damason dago**
► **Abendu bertan ireki nahi dute** ► **Ikastetxeetako gazte eta arduradunekin bildu dira nolako lokala egin erabakitzeko.**

Iban Arregi

dugu, gazte lokala, Udaleko arduradunek gazteentzako baliabideak jartze aldera denbora gutxian egingo duten bigarren obra handia.

Udaleko Gazte Batzordeko arduradunekin hitz egin dugu. Diotenez, «13-17 urte bitarteko

tarte hori zaila da, behin adin horretara iritxitakoan ez dakitelako nora joan; edo tabernetara joaten hasten dira, edo jolas-tokietara...». Gazte horiek, lekua behintzat izango dute abendutik aurrera. Izan ere, guztira 340 metro koadro egokituko dituzte. Besteak beste, gazte informazio bulegoa —30 urte bitartekoentzat—, ordenagailu gela, sukaldea, argazki gela, telebista gela, teatroa... izango ditu lokalak. Lokalaren dinamizatze lanak egiteko teknikari bat kontratatuko da.

Eta 17 urtetik aurrera?

«Beti ere ezinezkoa da gazteen behar guztiak betetzea, baina



Alde onak eta txarrak ikusten dizkio EHk proiektuari

Euskal Herritarrok-en iritzia ere jaso dugu, irekitzekotan den lokala dela eta. EHko kideen ustez, «beti ere ona da kultura eta gizarte ikuspegitik egindako azpiegiturretan inbertitzea, eta are gehiago gazte arloan». Hala ere, gazteentzako lokalen inguruan kezkatuta daudela esan digute EHkoek, eta honako galdera bota digute: «EAJk eta EAK zergatik dute adin zehatz batzuentzako lokalak egiteko hainbesteko presa, gero beste batzuei,

17 urtetik gorakoei, hainbeste traba eta oztopo jartzen dizkieten?».

Adinaren araberrako desberdintasuna egitea oso zaila dela esan digute. Baina hori bai, garbi dutena da 17 urte baino gehiagoko azpeitiarrentzat ere behar dela azpiegiturarik, «aisialdia antolatze-ko duten leku bakarra tabernak direlako». Eta ez dute ulertzen «EAJk eta EAK zergatik jartzen dizkieten hainbeste oztopo Azpeitiko

hainbat gaztek eginiko eskaerari». EAJk eta EAK gazteentzako lokalei eman nahi dieten funtzionamenduaz ere hitz egin dute EHkoek. Hauen ustez, 12 urtetik 17 urtera beharrezkoa izan liteke, «igoal», teknikari bat jartzea, «baina beti ere gazteen partehartzea bermatzeko formulak bilatuz». Ordea, «Azpeitiak etorkizunean behar duen gazte-lokal batean, 17 urtetik gorakoek ere egon ahalko duten horretan, *klabea* da autojestioa». EHk dio gazteek euren burua antolatzen ikasi behar dutela, maila batean gizartearen aurrean prestatzen joan behar dutela. «Egia da arazoak ere sortzen direla halako lokal autojestionatuetan, txukuntasuna eta zarata kasu; baina egia da ere gazteak berak ikasi behar duela lokala txukun mantentzen, eta zarata neurtzen; garbitzaile bat jartzen bada, lokala garbiago mantenduko da, hori argi dago, baina kontua ez da hori».

EAJk eta EAK erabili duten prozedura ere kritikatu du EHk: «Proiektua egiteaz arduratu direnak gazteekin-eta bildu dira, baina ez sakoneko gaiak aztertze; egia da ea futbolin bat edo beste zerbait nahi al duten galdetu zaiela, baina ez zaie galdetu sakoneko gaiez». Gainera, halako proiektu batek alderdi politikoen inguruan ere eztabaida eskatzen duela dio EHk, «eta ez da halakorik eman».

ahalik eta arlo gehien betetzen saiatzen ari gara». Hala esan digute Gazte Batzordeko arduradunek, herriko gazte askok, 17 urtetik gorakoek batik bat, duten kezkaz galdetutakoan. Hala, herriko nagusiagoentzako ere badaukate proiekturik: Enparan Dorretxean 17 ordenagailu jarriko dituzte, internetarako konexioarekin, eta ikasteko bi gela ere bai; Sindikatu Zaharra ere egokitu egingo dute bilerak egin ahal izateko, eta alboko gela ere bileretarako prestatu; Urrestillako musika taldeekin hauen lokalak egokitzeak akordioa egin berri dute...

18 urte dituen bati lokal

berrian sartzea ez omen zaio debekatuko, karneta eskatzen-eta ez direla hasiko diote, baina beharrezkoa ikusten dute adin aldetik banaketa bat egitea. «13 eta 25 urteko gazteak elkarrekin sartzen badituzu, eurek egiten dute banaketa; eta gainera, handiak txikiari lekua kentzen dio».

AGZ eta autogestioa

Azken urteetan gazteentzako lokal eske lanean dihardu *Azpeitian Gazteok Zer?! taldeak*. Talde horrekin bildu direla, eta berriro ere bilduko direla esan digute Gazte Batzordeko arduradunek. Baina bi aldeetan desberdintasunak dituz-

te, sakon-sakonekoak gainera. AGZ taldeak, bide horretatik, autojestioaren aldeko eredia defendatu izan du hasiera hasieratik. Eta Udaleko gazte Batzordeko arduradunei horretaz galdetuta, hauek autojestioaren aurka daudela esan digute: «guk ez diogu dena guk nahi dugun bezala egin behar denik, baina gu ez gaude autojestioaren alde; esperientzia horrek erakutsi digu ez dela ona, talde bat bakarrik geratzen dela lokalarekin, eta herriko gazte asko ez direla bere baitan hartzen». Dena dela, horretaz hitz egiteko beti prest daudela esan digute Udaleko Gazte Batzordeko arduradunek.

Eneko Ibarguren

Azpeitian Gazteok Zer?!-eko kidea

«Lokal berria ireki arren, gazte asko kalean gaude oraindik»

Jose Mari Bastida alkatea-
rekin bilera egin eta laste-
rretera etorri da gurera.
Abenduan alkatearekin
beste bilera bat egitekotan
gelditu dira.

► **13tik 17 urtera bitarteko
lokala irekitzera doaz.
Nola ikusten duzue?**

Lokal horrek ez ditu,
inondik inora, Azpeitiko
gazte guztien beharrak
betetzen. Alde horretatik,
Azpeitiko Udala gazte
lokala ireki behar duela
esan eta esan ari den
arren, argi eta garbi esan
behar da hainbat gazte
kalean gaudela oraindik.

► **Udaleko arduradunek
diotenez, ari dira 17 urte-
tik gorakoentzako ere
proiektu ezberdinak az-
tertzen: Sindikatu Zaha-
rra egokitu...**

Hori da azkenengo hiru
urteetan udala esaten ari
dena. Baina horrekin ez
da nahikoa. Behingoz,
gazteok dugun lokalaren
beharra seriozki aztertu
behar du Azpeitiko Uda-
lak.

► **Demagun Azpeitiko
Udalak 17 urtetik gorako-
entzako lokala prestatzen
duela. Hor bi eredu topa
egingo lukete. Udalare-
nak eta zuenak, ez zaizu
iruditzen?**

Egia esan behar badut,
guk gazte-lokalaren ingu-
ruko proposamen bat
eman genuen martxo
aldera. Proposamen ho-

rretan izaera aldetik, fun-
tzionamendu aldetik, egi-
turaketa aldetik, lokala
nola ikusten dugun azter-
tzen dugu. Eta guk ofizial-
ki ez dugu udalaren alde-
tik inolako proposamenik
jaso. Badakigu autojestio-
aren aurka daudela, baina
guri ezer esatera ere ez
dira heldu.

► **Zuek ze funtzio ematen
dionuzue gazte-lokal bati?**

Guk garbi dugu, eta hori

«**Lokala ez
dugu helburu gisa
planteatzen,
tresna gisa baizik**»

hasiera hasieratik esan
izan dugu, lokala ez
dugula helburu moduan
planteatzen, tresna beza-
la baizik.

► **Zertarako tresna?**

Batetik, gazteei egune-
roko bizian, aisialdian,
beste hainbat gauza egi-
teko altematiba moduan
ikusten dugu gazte-loka-
la; bigarrenik, gazteok
gure egunoroko dinami-
kan erraztasunak izateko
balioko luke; eta hiruga-
rrenik, gazte koadrilen
arteko komunikazioa lan-
tzeko eta hobetzeko
balioko luke.

► **Ordea, eta Udaleko
arduradunek diotenez,
herrian biltzeko badago
lokalik.**



«**Lehen bait
lehen proposamenen
inguruan hitz
egin behar da**»

Bilerak egiteko, hor dugu
Sindikatu Zaharra, baina
egundoko papeleoa egin
behar da han bilera bat
egiteko; sukaldaritzako
ikastaro bat nonbaiten
egin ahal da, eta beste
edozein ikastaro egiteko
lokalak ere egon badaude;
kontzertuak emateko ere,
berdura-plazan, aurretik
ordua-eta hartzen baduzu,
egin daiteke. Baina oso
sakabanatuta daude. Bil-
gune bat behar-beharrez-
koa da.

► **Azken egunotan udale-
ko arduradunekin bildu
zarete. Zer moduz?**

Bai, orain dela pare bat
aste bildu ginen Jose Mari
Bastida alkatearekin. Eta
hitz egiteko prest daudela

Azpeitian Gazteok
Zer?! taldeak denbo-
ra dezente darama
lokal eske; horri
buruz jardun dugu
hizketan Eneko
Ibarguren kidearekin.

Iban Arregi

ikusi dugu, beraiek hala
diote. Baina ez daude
prest gauza zehatzen
inguruan hitz egiteko.
Beraiek ikusten badute
hor behar bat badagoela,
eta beraiek prest daudela
hitz egiteko, lehen bait
lehen hasi beharko ginate-
ke proposamenen ingu-
ruan hitz egiten. Gazteok
geurea egin genuen, eta
haiek gutxienez erantzun
beharko lukete, beraien
proposamena zein den
esan beharko lukete.
Baina benetako eztabaida
saihestu egiten dute. ■

Kontseiluak Azpeitia hautatu du herrietako plangintzarako

Herriko eragileak inplikatu nahi dira euskalduntze prozesuan

► Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak, Euskal Herriko euskalduntze plangintzarekin segitzeaz gain, herrietakoari ere ekingo dio ► Oraingoz hamabi hartu ditu esperientzia pilotu gisa, eta Azpeitian da horietako bat ► Azpeitiko euskalgintza osoa bat egina dago, eta udalak eta gizarte eragile batzuek ere izena emana dute.

Uztarrria

Pozik egoteko moduan da Azpeitia euskarari dagokionez; izan ere, Kontseiluak Azpeitia aukeratu egin du herrietako euskalduntze plangintza aurrera eramateko. Kontseiluak aurrera darama Euskal Herriko plangintza, «arrakastaz», eta orain herrietakoari ekingo dio.

Hasiera batean, ordea, esperientzia pilotu gisa herri bakar batzuk hartzea erabaki du Kontseiluak. Hala, herriei deialdia luzatu zien irailean, baldintza batzuk eskatuz. Herri bakoitzeko euskalgintzak hautagaitza aurkezteko erabakia hartzea zen lehen baldintza. Azpeitian ez da dudarik egon. Gainera, euskalgintza bera ez zen irailean hasi

biltzen, udaberri aldera baizik, hain justu Kontseilua bera Euskal Herri mailako plangintza azaltzera etorri zenean. Geroztik herrian euskarak daukan egoerari buruz hitz egin da, irailean Kontseilua-ren proposamena iritsi zen, eta egokia iruditu eta sinadurak biltzeari ekin zion euskalgintzak —Kontseiluak hasieratik esan izan du herrietako bere kontaktua euskalgintza dela—. Hala, euskalgintza osoak sinatu du Azpeitiko hautagaitza: Karmelo Etxegarai Ikastola, Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitia BHI, Ikasberri Ikastola, Betharram Ikastetxea, Iraurgi Ikastetxea, Jesusen Alabak Ikastetxea, Milagrosa Ikastetxea, Uztarrria Kultur Koordinadora, AEK, EHE, Udal Euskaltegiko langileak eta Erriarraitz Bertso

Elkarteak. Ondoren, eta Kontseiluak hala eskatzen zuelako, Azpeitiko Udalarengana jo zuen euskalgintzak, eta udalak ere sinatu zuen, ondorengo asteetan gauza batzuk hitz egin beharko direla zioen arren. Herriko gizarte eragile garrantzitsu bakar batzuen babesa ere eskatu zuen Kontseiluak, eta Azpeitian ELA, LAB, EHNE, Euskadiko Kutxa, Danona Kooperatiba eta Alde Zaharreko Merkataria eragileen sinadura lortu zen.

Azaroaren 14an jakinarazi zuen Kontseiluak bere erabakia, eta Azpeitiarekin batera, Altza, Arrasate, Eibar, Galdakao, Markina, Ondarroa, Ordizia, Sakana, Santurtzi, Sara eta Tolosaldea ere hautatu ditu. Kontseiluak euskalgintzaren inplikazioa eta bitarteko ekonomikoak bermatzea eskatzen die herriei. Orain Zuzendaritza osatuko da, langileak hartu, eta herriko gizarte eragileak gonbidatzen eta inplikatzen hasi. Bai Euskarari Akordioa sinatzea ere aurreikustean da. ■



HORTZ KLINIKA

Dr. Antonio Rafaniello

- Odontologi Orokorra.
- Odontologi Estetikoa.
- Ahozko Zirujia.
- Implante integralak.
- Protesis mugikorraren sustituzioa, protesis fijora.
- Pieza gabekoa, sustituzioa pieza fijora.

Enparan n°8 - 1º Tel.: 81 67 36



LEIHO ISOLAGARRIAK

EXPO: San Martin 4, AZKOITIA. **943.85.15.53**

FABRIKA: Pol. Kataide, Pag.4. MONDRAGON



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Diego Garcia

Atleta

“Egindako ametsak bete dira; ez nuen uste horrenbeste iraungo nuenik”

Utzi dio Diego Garciak atleta profesionala izateari; 39 urterekin utzi ere. Eta duintasun osoarekin, oso maila onean. Bere karrera luzearen gainbegiratua egin du UZTARRIA herri aldizkariarentzat, Loiolan, patxadan, udazken euritsu honetako arratsalde batean.

► **Milaka kilometro egin ondoren, korrika egiteko makina betirako garajeon gordetzea erabaki duzu. Garajeko atletikatzera begiratuta zer ikusten duzu?**

Gauza asko, onak eta txarrak, baina ni gauza onekin gelditzen naiz, eta gauza on hauen artean, kirol aldetik behintzat, Helsinkiko Europako Txapelketan lortutako bigarrenengo postua dago. Baita Munduko Txapelketako seigarrenengo postua eta Olinpiar Jokoetako bederatzigarrenengo ere. Hiru hauek izan dira neure lorpenik garrantzitsuenak.

Txetxu Urbietta, Euskadi Irratiko kirol kazetari azpeitiarrak egin dio elkarriketa Diego Garciari, UZTARRIARako. Aspaldiko lagunak dira biak, eta seriotasunez jardun dute solasaldian, Diego Garciaren agurra dela-eta.

Txetxu Urbietta

► **Europako Txapelketako bigarren postu hori Alzheimerrak ere ez lizuke sekula burutik kenduko, ezta?**

Ez niri soilik ordea, atletismo zaleei ere ez lieke kenduko. Ametsa egia bihurtu zen.

► **Adituek diote Gipuzkoak historia osoan eman duen atletarik onena zarela. Soldadutzari ihes egiteko lasterka hasi zen batentzat ez da gutxi, ezta?**

Ez, ez da gutxi. Garai hartan derrigortuta joan beharra zegoen soldadutzara. Nik Galizian egin nuen. Baina zorte ona ere eduki nuen, hango atleta batekin topatu nintzelako, eta asko ikasi nuen. Orduan hasi nintzen atletismoa serioago hartzen, eta garai hura garrantzitsua izan zen azkenean iritsi naizen tokiraino iristeko.

► **Zu Gipuzkoako onena eta Martin Fiz Euskal Herriko onena; haren**



DIEGO GARCAREN DATUAK



Jaioteguna: 1961eko urriaren 12an; 39 urte ditu, beraz.

Jaioterria: Azkoitia. Azpeitian bizi da.

Entrenatzailea: Santiago Perez, orain dela hamabost urtetik.

Taldea: Adidas.

Bere maratoiak denboraka

Urtea	Tokia	Denbora	Postua
1995	Fukuoka	2.09.51	4.
1992	Fukuoka	2.10.30	3.
1998	Londres	2.10.36	7.
1994	Helsinki	2.10.46	2.
1993	Donostia	2.10.58	10.
1998	Berlin	2.11.03	7.
1995	Sevilla	2.11.21	1.
1997	Berlin	2.11.26	15.
1996	Fukuoka	2.11.31	4.
2000	Seul	2.11.48	2.
1999	Donostia	2.12.34	2.
1999	Amsterdam	2.12.47	7.
1989	Donostia	2.12.48	4.
1991	Londres	2.12.54	23.
1997	Bartzelona	2.13.42	2.
1990	Londres	2.13.48	17.
1990	Donostia	2.14.24	2.
1994	Boston	2.14.35	27.
1992	Bartzelona	2.14.56	9.
1995	Goteborg	2.15.34	6.
1992	Bartzelona	2.15.50	6.
1999	Turin	2.16.57	14.
1997	Fukuoka	2.17.23	21.
1993	Rotterdam	2.18.21	16.
1991	Tokio	2.21.16	14.
1996	Atlanta	2.22.11	53.
1997	Atenas	Erretiratu	
1998	Budapest	Erretiratu	
1999	Londres	Erretiratu	

Maratoian debuta: 1989ko urriaren 15ean, Donostian.

Azkeneko maratokia: 2000ko martxoaren 19an, Seulen.

Maratoiak guztira: 29.

Bukatu: 26.

Irabazi: 1 (1995eko otsailaren 25ean, Sevillan).

Bere errekorra: 2.09.51 (1995eko abenduaren 3an, Fukuokan).

Batez besteko denbora: 2.13.00.

Txapelketa garrantzitsuenak: Bi aldiz hartu du parte Olinpiar Jokoetan (1992an Bartzelonan eta 1996an Atlantan), hiru aldiz Munduko Txapelketan (1991n, 1995ean eta 1997an), bi aldiz Europako Txapelketan (1994an eta 1998an).

Lorpenik handienak: 1994ko Europako Txapelketan bigarren, 1995eko Mundialean seigarren, 1992ko Jokoetan bederatzigarren.

garaipen handiengatik, askotan ez al dira zure lorpenak behar bezala baloratu gabe gelditu?

Beno, normala da hori ere, ezta? Fiz munduko onenetakoa izan da, munduko txapelduna izana delako, Europakoa ere bai, eta pozten naiz horrengatik, baina egia da horrengatik nik egin dudana ez dela behar bezala apreziatu.

► **Zuk lasterka, sufritu ala gozatu egin duzu?**

Gozatu azkeneko lau urteetan gutxi gozatu dut, eta sufritu, berriz, asko; gehiegi aspaldian.

► **Eta ez al zara erre?**

Gorabeherak izan ditut, batik bat 1996ko Atlantako Olinpiar Jokoen ondoren.

► **Erretiratzen jakin edo asmatu al duzu?**


Bai. Izan ere, berriro errekuperatu eta azkeneko bi urteetan jendeari demostratu diodala uste dut, Donostian eta Seulen bigarren bukatuz eta Amsterdamen zazpigarren. Berriro goian egon naiz eta hori oso garrantzitsua zen niretzat erretiratzeko. Ez naiz frustratuta erretiratu, oso pozik baizik.

► **Noiz erretiratu jakin izan duzu. Maratoira noiz pasatu ere bai?**

Bai, 1989an ez zegoelako gaur egungo maila bikain hau, ordungoa ere ona zen arren.

► **Atletismotik bizitzea lortu duten bakarretakoa zara. Beste batzuk goizeko zortzietarako tailerrera sartu behar eta, hala ere, lehenago lasterka egitera joaten dira. Zer pentsarazten dizu horrek?**

Ba, ni neu hori ere probatuta nagoela. Batzuek afizio bezala hartzen dute atletismoa eta besteek profesional bezala. Nik biak probatu ditut. Ni egin-



IÑAKI URANGA

Hemendik aurrera beste bizimodu bat

Enekoitz Esnaola

Orain dela 11 urtetik —maratoian jo eta fuego hasi zenetik— bizimodu era bat izan du Diego Garciak, lasterketara dedikatua batik bat, duela urte batzutatik Aradi kirol dendari ere zenbait ordu eskaintzen dizkion arren. Goizeko bederatziak aldera jaiki eta bi orduz entrenatzen zen, gogor, gero beste pare bat ordu dendan pasatzeko. Eta arratsaldean gauza bera: bi orduz entrenatu eta bi orduz negozioan. Orain ere ordu berean jaikitzen da, baina ez lasterka joateko, dendara joateko baizik. «Hemendik aurrera negozioira dedikatuko naiz erabat», dio.

Baina haren bizimodu ez da horretan soil-

lik aldatuko. Jateko kontuan, adibidez, egundoko aldaketa izango du. «Lehen pasta baino ez nuen jaten. Orain ez. Badira egunak pasta ez dudala probatu ere egin. Orain, garbanzuak, lentejak...», esaten du, beste bizipoz batekin. «Eta lehen txuleta jaten banuen, gero hori lasterka bota egin beharko nuela pentsatuz jaten nuen. Orain ez. Orain lasai jaten dut».

Asteburuetan ere alde ederki ibiliko omen da. «Lehen parranderoa izan gabe parrandero fama baldin banuen, orain... Baina mendira joango naiz asko, txakurrarekin, inguruko parajeetara, Huescara. Oilagorretan ibiltzea gustatzen zait». Lehen goan joan zen... esko-petarik gabe.

DENDARA dedikatuko da, JAN "LASAIAGO" egingo du...

**“ATZERA
BEGIRATUTA
GAUZA ONAK
ETA TXARRAK
IKUSTEN DITUT,
baina ni
GAUZA ONEKIN
gelditzen naiz”**

**“POZTEN
NAIZ FIZENGATIK,
BAINA HARK
EGINDAKOAGATIK
NIK EGIN
dudana ez da
BHAR BEZALA
apreziatu”**

da nago Zubillaganean hamar ordu lan, irten goizeko seietan, hartu autoa eta Vigoraino (Galizia) joan, Espainiako 10.000 metroetako finala korritu eta seigarren bukatu, 29.01eko denborarekin. Sufritu beharra dago, eta arriskatu beharra.

► **Atletismoa sakrifizio askoko eta esker gutxiko kirola da.**

Bai, eta batik bat maratonia. Lau hilabeteen lan handia egin behar da maratoni batera ondo iristeko, eta gero egun batean jokatzeko duzu guztia. Gogorra da psikologikoki. Eta maratoian bertan arazo fisiko txikia izanda ere, azkeneko arazo hori handia bihurtzen da, kilometro asko direlako egin beharrekoak.

► **Teidera joan (Tenerife, Espainia), entrenamendu gogorrek egin, erabat nekatuta egon eta etorkizuna batera argi ikusten ez zenuenean egindako ametsak bete al dira?**

Nik uste dut baietz. Orain dela bederatzi urte joan nintzen Teidera, langabeziko dirua eta Lasarte teko Krosean irabazitako ehun mila pezeta inbertituta, eta orduan ez nuen

Kolpera utzi behar al du?

E. Esnaola

Puntako kirolari batek, urte-etan entrenamendu gogor-
rak egin ondoren, erretiroa
hartu eta komeni al da hark
kolpetik uztea saioak? Diego
Garciaen kasua da hau, eta
haren masajistak, Juan Mari
Olaizola azpeitiarrak, argi
eta garbi dio ezetz: «Puntako
kirolariak bihotza oso han-
dia izaten dute, egiten duten
esfortzuagatik. Oso pultsa-
zio gutxi izaten dituzte, eta
pultsazio gehiago izatera pa-
satu beharra dute, apalago
baina entrenatzen segituz».

Azken hamabost urteotan
Juan Marik eman dizkio ma-
sajeak Diegori, eta horretaz
gain «psikologo lanak» ere
egin ditu. «Presio handia ja-
saten dute eliteko kirolariak,
eta masaje orduan ondo tra-
tatzen asmatu behar da, be-
ren kezkak-eta entzunez».



INAKI URANGA

JUAN MARI OLAIZOLA: «ENTRENATZEN segitu denar du PULTSAZIO gehiago IZATEKO»

Atletak berak dio inori baino
kontu pribatu gehiago kon-
tatu dizkiola Juan Mariri.
«Horma hauek hitz egingo
balute, eh, Juan Mari»?.

pentsatzen maila handi
batean horrenbeste iraun-
go nuenik.

► Ez zara laborategiko
atletaren eredu. Ez al
duzu uste zu eliteko
atleta izatea ia-ia mira-
ria izan dela?

Bai, esan daiteke. Gaur
egun atleta asko eta
askori medikuntzak ia
entrenamenduek baino
gehiago laguntzen diote.
Niri ere lagundu izan dit
medikuntzak baina...

► Zorte txarra ere izan
duzu. Barruan zenuen
guztia hustutzeko auke-
ra gutxi izan al duzu?

Bai. Gauza bat dago
garbi: askotan ibili naiz
2.10-2.12 inguruan, bai-
na, lesioez gain, bero edo
haize handiarekin eta,
gainera, proba ofizialetan.

► 2.09.51eko marka du-
zu. Zein litzateke zure
marka zorte ona izanda?

Nik uste dut 2.08.30 eta
2.09.00 artekoa nukeela.

“**ZORTE
ONA IZAN BANU,
NIK USTE
USTE DUT
2.08.30
eta 2.09.00
ARTEKO MARKA
izango nukeela**”

“**ESPERO
DUT GIZARTEAK EZ
HORRENBESTE
ESKATZEA
KIROLARI
gazteei eta
GEHIAGO LAGUNTZEA
bestela ezin da**”

► Bestetik, zer dute Ja-
poniako maratoiek he-
mengoez ez dutena?

Ba, han maratoia asko
bizi dutela, igual hemen
futbola bezala. Nik hango
garai onenak harrapatu
nituen, eta jendeak maite
ditu maratoilariak. Diru
aldetik ere ondo portatzen
dira.

► Behobia-Donostia ere
gustuko proba izan du-
zu. Azkenekoan agurtu
zinen, bigarren izanez.
Zure agurrean zergatik
ekarri zituzten tanza-
niar bat (garailea) eta
etiopiar bat?

Esku beltz bat egon
zelako. Badakit zein izan
zen bi haiek ekartzea era-
baki zuena, eta haren hel-
burua haxe zen: nik,
neure agurrean, ez ira-
baztea. Eta lortu zuen.
Baina nik gustura bukatu
nuen. Gainera, zera: nire
ezaugarrietako ez da izan
irabaztea, eta irabazi izan

banu, jendeak pentsatuko
zukeen utzi egin zidatela
irabazten, ezta?

► Azpeitian (eta Azko-
itian) atletismoa nola
ikusten duzu?

Jendea ari da lanean,
Iraurgi klubaren bitartez,
baina zaila da atletismoa,
puntako beste edozein
kirol bezala. Izan ere,
gizarteak irabaztea eska-
tzen die eliteko kirolariak.
Txirrindularitzan garai bi-
kainak izan ziren, Miguel
Indurainen bitartez, baita
atletismoan ere, Fizen eta
nire bitartez, eta orain
espero dut, maila pixka
bat behintzat jaitsi dene-
an, gizarteak ez eskatzea
horrenbeste kirolari gaz-
teei eta gehiago lagun-
tzea; bestela ezinezkoa
da aguantatzea.

► Inguruotan atletismo-
ko pista bat eskatzen ari
dira. Pista beharrezkoa
da ala bada lehenago
egin beharreko zerbait?

► **Jaitsiko al da inoiz bi ordutik maratoian?** Nik uste dut ezinezkoa izango dela hori.

► **Jaitsiko al du azpeitiar batek 2.15etik maratoian?**

Orain dagoen maila kontuan hartuta, ez, Xabin Aranaga hor dagoen arren.

► **Martin Fiz edo Gelindo Bordin?** Fiz lagun handia dut baina atleta bezala berekoiegia da eta hori ez zait gehiegi gustatzen. Alde horretatik Bordin nahiago.

► **Beraz, lehenago pertsona eta gero atleta?** Bai. Adibidez, Antonio Serrano aurrena atleta da eta gero pertsona, eta horregatik ditut arazoak harekin.

► **Maratoi bat?** Londreskoa.

► **Zirkuitu bat?** Berlingoa.

► **Zure maratoirik onena?** Helsinkiko Europeokoa (2.).

► **Eta txarrena?** Atlantako Olinpiar Jokoetakoa.



IÑAKI URANGA

Omenaldi beroa jaso zuen

Azaroaren 12an korritu zuen azken proba profesional gisa —Behobia-Donostia— eta omenaldi beroa jaso zuen orduan, Añotan. 250 lagun izan zen han. Argazkian, Diego oroigarri batekin. Ezkerrean, Alberto Juzdado atleta.

**“AZPEITIAN
LEHENAGO JARRIKO
NITUZKE
atletismoko
HIRU TEKNIKO ON,
pista bat baino”**

Nik uste dut afizioa sustatu behar dela lehendabizi, pista bera jartze soila atletismoa sustatzeko amua izango balitz ere.

► **Zer jarriko zenuke lehenago Azpeitian: pis-**

ta bat ala atletismoko hiru tekniko on?

Hiru tekniko on. Bestela Zumarragakoa gerta daiteke (hara joaten nintzen asteburuetan): pista bai, baina hutsik. ■

JOIE - MAGKAR

**estetikako
azken
teknikak**

Enparan, 15-1
Tel. 813898

KIRURI

JATETXEA

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

Inaxita

PELUQUERIA - ILEAPAINDEGIA

**ORRAZKERAK
SOLARIUM**

Erdikale, 16 - 1.º
Tel. 81 18 24
20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

Diegoz gain, beste 150 herritarrek ere bukatu zuten Behobia

laz baino hamazazpi herritar gehiagok amaitu zuen lasterketa

herrikoen sailkapenak

1. GARCIA, Diego (2)	1:01:59
2. MUÑOZ, Pedro (42)	1:08:23
3. MANZISIDOR, Iosu (55)	1:09:15
4. JIMENEZ, Agustin (151)	1:13:45
5. ORTEGA, Joseba (154)	1:13:54
6. LASA, Xabier (176)	1:14:34
7. ZELAIA, Jexux (217)	1:15:26
8. SUDUPE, Andoni (230)	1:15:42
9. MANGAS, Mikel (335)	1:17:35
10. OIARZABAL, Asier (340)	1:17:40
11. GOENAGA, Eneko (474)	1:19:20
12. LAZAROBASTER,Unai (520)	1:19:52
13. TELLERIA, Javier (616)	1:20:56
14. SAIZAR, Iñaki (636)	1:21:05
15. AIZPURU, Luis (669)	1:21:29
16. LIZARRALDE, Agustin (764)	1:22:31
17. AZPIAZU, Antton (841)	1:23:13
18. SUDUPE, Alex (881)	1:23:28
19. EGIGUREN, Agustin (892)	1:23:31
20. SEGUROLA, Arkaitz (927)	1:23:43
21. AZPIAZU, Jose Ignacio (929)	1:23:44
22. ARTETXE, Mikel (961)	1:23:59
23. LUENGO, Mikel (1086)	1:24:57
24. DEL POZO, J. Carlos (1107)	1:25:08
25. GORROTXATEGI, Xabier (1146)	1:25:25
26. SASIETA, Jose Manuel (1151)	1:25:26
27. ALBIZURI, Joxe Luix (1175)	1:25:35
28. IZAGIRRE, Josu (1213)	1:25:55
29. GARATE, Jon (1230)	1:26:01
30. MEDINILLA, Iñigo (1231)	1:26:01
31. OLAIZOLA, Koldo (1234)	1:26:02
32. SEGUROLA, Julian (1236)	1:26:02
33. GOENAGA, Aitor (1246)	1:26:05
34. OLAIZOLA, J. Ignacio (1356)	1:26:45
35. EGIGUREN, Jokin (1385)	1:26:58
36. ETXEZARRETA, Aitor (1387)	1:26:59
37. ORBEGOZO, Iñigo (1420)	1:27:11
38. ARANBURU, Pello (1516)	1:27:45
39. GURRUTXAGA, Iñaki (1546)	1:27:53
40. AROZENA, Haritz (1616)	1:28:13
41. LOPETEGI, Jexux (1634)	1:28:15
42. ETXEBERRIA, Xabier (1635)	1:28:15
43. ORBEA, Pablo (1688)	1:28:28
44. REZABAL, Iñaki (1792)	1:29:02
45. IZAGIRRE, J. Cruz (1801)	1:29:05
46. GARCIA, Ignacio (1816)	1:29:09
47. ORBEA, Aitor (1840)	1:29:18
48. ELUSTONDO, Asier (1886)	1:29:26
49. RUIZ DE ARGANDOÑA,M.(1888)	1:29:26
50. ZULAIKA, Aitor (1895)	1:29:27
51. ARAMENDI, Ion (1956)	1:29:45
52. AIZPURU, Jon (2020)	1:30:01
53. PEÑA, Juan (2023)	1:30:01
54. ARANGUREN, J. Joxe (2122)	1:30:26

55. GARCIA, Agustin (2144)	1:30:33
56. AZKUE, Mikel (2155)	1:30:37
57. GALDOS, Jon (2170)	1:30:45
58. ARREGI, Juan Ignacio (2223)	1:31:02
59. AIZPURU, Miguel A. (2277)	1:31:24
60. URANGA, Alejandro (2331)	1:31:43
61. LARRAÑAGA, Andoni (2372)	1:31:55
62. ETXEBERRIA, Julen (2496)	1:32:38
63. ETXEZARRETA, Xabier (2543)	1:32:55
64. SAEZ DE VICUÑA, Gurutz (2588)	1:33:08
65. IRIARTE, Daniel (2592)	1:33:08
66. IRIARTE, Iosu (2599)	1:33:10
67. LAPEIRA, Juanjo (2664)	1:33:35
68. OLABIDE, Aitor (2713)	1:33:51
69. MORILLO, Fernando (2813)	1:34:17
70. ALKORTA, Ana (2888)	1:34:42
71. UNANUE, Aitor (2926)	1:34:56
72. ITULAIN, Mikel (2929)	1:34:57
73. IEREGLI, Ibon (3002)	1:35:17
74. AIZPURUA, Jokin (3054)	1:35:34
75. OIARZABAL, Jon (3334)	1:37:05
76. AGIRREZABAL, Aitor (3339)	1:37:06
77. OTAÑO, Jaime (3385)	1:37:22
78. NUÑEZ, Constan (3418)	1:37:33
79. LARRAÑAGA, Iñaki (3490)	1:37:49
80. AZPEITIA, Juan (3491)	1:37:49
81. AGIRREZABAL, Unai (3629)	1:38:28
82. AZKUE, Joxean (3649)	1:38:34
83. EGAÑA, Andoni (3860)	1:39:35
84. ARRIARAN, Aitor (3927)	1:39:53
85. MADRAZO, Agustin (3956)	1:39:58
86. URANGA, Iñaki (3978)	1:40:02
87. ALBERDI, Javier (4145)	1:40:47
88. UZKUDUN, Garikoitz (4406)	1:41:59
89. JOXEMAI, Joxemai (4506)	1:42:23
90. AIZPURU, Ion (4509)	1:42:23
91. AZPIAZU, Nerea (4581)	1:42:46
92. PEÑA, Josu (4704)	1:43:13
93. URIA, Jagoba (4832)	1:43:47
94. KABINE, Joseba (5004)	1:44:32
95. ODRIOZOLA, Xabier (5091)	1:44:55
96. ARZAMENDI, Ander (5412)	1:46:27
97. ALDALUR, Aitor (5426)	1:46:33
98. ALDALUR, Gurutz (5615)	1:47:26
99. GARATE, Garikoitz (5620)	1:47:27
100. ETXANIZ, Mamen (5843)	1:48:32
101. ASTIGARRAGA, Alex (5919)	1:48:58
102. EGIGUREN, Ion (5951)	1:49:08
103. SEGUROLA, Gema (5998)	1:49:23
104. GARMENDIA, Iñaki (6002)	1:49:23
105. CUSTODIO, Santi (6039)	1:49:38
106. CUSTODIO, Andres (6041)	1:49:39
107. ALTUNA, Jabier (6141)	1:50:11
108. ARREGI, Jose M. (6177)	1:50:21

109. ARANAGA, Iñaki (6301)	1:51:02
110. MARTINEZ, Mikel (6417)	1:51:37
111. ETXANIZ, Mikel (6441)	1:51:43
112. BASTIDA, Iñaki (6482)	1:51:55
113. GURRUTXAGA, J. M. (6484)	1:51:56
114. HIDALGO, Pepe (6487)	1:51:57
115. ORBEA, Estebe (6532)	1:52:12
116. LUENGO, Pedro (6610)	1:52:40
117. UNANUE, Ander (6624)	1:52:45
118. SAN JUAN, Luix (6718)	1:53:11
119. ALBERDI, Santi (6800)	1:53:39
120. ESNAOLA, Alazne (6829)	1:53:52
121. KARRERA, Iosu (6857)	1:53:59
122. ABAUSIZ, Mikel (6953)	1:54:29
123. SAGARDOGI, Mariano (7022)	1:54:53
124. URTUZAGA, Mertxe (7033)	1:54:57
125. REZABAL, Mikel (7039)	1:54:58
126. ALONSO, Roman (7060)	1:55:10
127. AGIRREZABALAGA,Martxel (7065)	1:55:11
128. AZPIAZU, Aitor (7070)	1:55:14
129. ELIAS, Xabier (7272)	1:56:38
130. AZPILLAGA, Xabier (7401)	1:57:24
131. ARISTONDO, Xabier (7403)	1:57:24
132. BEREZIARTUA, Fernando (7478)	1:58:09
133. AGIRRE, Pako (7480)	1:58:09
134. IRIARTE, Ion (7583)	1:59:07
135. ALKORTA, Maite (7586)	1:59:09
136. BEREZIOTEA, Jesus (7605)	1:59:20
137. BASTIDA, Aitor (7702)	2:00:09
138. ALDAI, Igor (7805)	2:00:48
139. OSINALDE, Xabier (7807)	2:00:49
140. OLAIZOLA, Angel (7939)	2:02:15
141. ZENDOIA, Iban (8109)	2:04:23
142. ARREGI, Aitor (8178)	2:05:16
143. LARRAÑAGA, Arantxa (8408)	2:08:38
144. LARRAÑAGA, M. Jesus (8409)	2:08:39
145. BASTIDA, Jon (8442)	2:09:28
146. ARANBURU, Xabier (8474)	2:10:02
147. ZEZIAGA, Leire (8494)	2:10:02
148. ARANBARRI, Ana (8550)	2:12:12
149. ETXEBERRIA, Ali (8552)	2:12:12
150. GURIDI, Krux (8555)	2:12:13
151. ARREGI, Jose Maria (8611)	2:14:14

Oharrak:
1. Datuak antolatzaileek interneten jarri dituztenak dira. Badirudi aurtien lehen aldiz jarri den txip horrek arazoak eman dituela denborak hartzerakoan, eta denborak zertxobait puztuta daudela kasurik gehienetan.
2. Parentesi artean ageri dena, probako sailkapen orokorreko postua da.
3. Sailkapenetan agertzen direnak azpeitian-rrak dira edo Azpeitian bizi direnak.

Bukatu zutenak: 151

Gizonezkoak: 138

Emakumezkoak: 13

Bataz besteko marka: 1:39.30

1. gizonezkoa: Diego Garcia

1. emakumezkoa: Ana Alkorta

107.6 FM uhinetan

Karmelo Etxegarai Ikastolako Txalaparta irratiak bost urte bete ditu hil honetan

► Xabierko Frantzizko egunean, abenduaren 3an, bost urte beteko ditu Txalaparta irratiak ► Karmelo Etxegarai Ikastolako ikasle guztiek hartzen dute parte, irratsaio bat eginez ► Azaroan hasi eta ekaina bitartean izaten da irrati martxan.

Nerea Uranga

Taldea, heldu da irratiara, taldea 6A gelako Isis, Haritz, Ane, Iraitz, Driss eta Landerrek osatzen dute. Goizeko hamarrak pasatxo dira eta urduri datoz irratiara, gaur eurak izango baitira irrati esatari, irratiara, mikro artera sartu ahala, lekuak hartu eta irrati arduradunetako baten, Idoia Agirre irakasleak hainbat ohar eman dizkie: «Eskuak gelditu, eta gertu hitz egin, ez baita bestela entzuten». Ikasleetako batzuek



Ikasleak izaten dira hizlari Txalaparta irratiaren.

NEREA URANGA

aurreneko aldia dute irratsaioa egiten dutela; esperientzia berri bat, beraz.

Denak, prest. Irrati esatari gazteak alde batean eta kontrolean berriz, Idoia Agirre eta Xebas Bereziartua irakaslea. Txalaparta irratiaren sintonia

entzun eta Landerrek hartu du hitza: «Egun on, Txalaparta irratiaren entzuleak. Gaurko saioan albisteak, txisteak, errezeptak, asmakizunak, istorio arraro bat, ahokorapiloak eta zorionen txokoa izango ditugu...»

Gela guztietakoak eta Kar-

**IREDE
ESTETIKA**



- + ESTETIKA OROKORRA
- + TATUAIAK
- + MIKROPIGMENTAZIOA
- + SOLARIUM BONOIA (6.500)
- Azken teknologia:
- + LASER BIDEZ BEHINBETIKO
DEPILAZIOA:
- Ordaintzeko errezeptasunak
- + MASAIA: - Linfatikoa
- Antizelulitika

ORDUTEGI JARRAIA (9:00-19:30)
Urbite 4, beheko AZPEITIA
Tel. 943 15 15 09



IZARRAIZPE
IRAKASKUNTZA ELKARTEA

**AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI**

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

melo Etxegarai Ikastolako haur eta gaztetxo guztiek parte hartzen dute irratan, gelan prestatzen dute irratsaioa, eta astelehena eta asteartetan orduerdiko saioa egiten dute zuzenean, goizeko hamarretatik aurrera. Gero, eguerdiko ordubatean, goizean grabatutako irratsaioa berriro ematen dute. Idoia Agirre irrati arduradunaren esanetan, «hiru urtetik hasi eta sei garren maila arteko ikasle guztiak pasatzen dira irratitik, Urrestillakoak ere bai. Txikienek, haur hezkuntzakoek egun batean irratsaio bat egin ohi

dute. Tartean saio bereziak ere egiten dira, ipuinak antzeztu, gonbidatuak ere izaten dira, herrian ezagunak diren hainbat pertsona elkarriketatu izan dira». Irratsaio guztiak, grabatu eta artxibatuta gelditzen dira ikastolan. Bestalde, ikastolako gela guztietan irrati dute, eta gelakideak irratsaioa egiten ari diren bitartean gainontzekoek gelan irratsaioa entzuten izan ohi dira.

Iaz, astelehen gauetan ikastetxeko ikasle ohiek ere egiten zuten irratsaio bat eta orain hiru urte gurasoek euren irratsaioa

zuten larunbatetan. Aurten, oraindik horrelako saio berezirik ez da irratan. Hala ere, irratia hasi berri du aurtengo ikasurtea.

Irrati topaketak

Orain dela bi urte, Txalaparta irratan Eskolarteko Irrati Topaketak egin zituzten. «Dozena bat ikastetxe bildu ginen, saio berezi bat egin genuen denon artean, goiz oso bateko irratsaioa izan zen. Berriro egitekoan gelditu ginen, baina beste inor ez da ausartu antolatzerara», dio Idoiak. ■



Iraurgiko ikasleen aldizkaria

Iraurgiko DBHko ikasleak izan ziren UZTARRIA herri aldizkariaren lokalean. UZTARRIAkooi elkarriketa egin ziguten, eurek urtero ateratzen duten aldizkarian argitaratzeko. Iraurgiko ikasleek aldizkari txiki bat atera ohi dute eta ikastetxeko ikasleen artean jartzen dute salgai, hogeitun. Ilusioz eta galdeketa ederki prestatuta etorri ziren.



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 2265
Fax.: 943 85 28 67
E-mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

Perdilegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70
Fax.: 943 81 66 20
E-mail: azpeitia@urola.hezitek.net



*Eguberri ta urteberritan
ohitura bat da betitik
oparixorenbat eskeintzea
bakoitzak bere aldetik
gure dendetan aukera hori
badezu klase guztitik
Zorionak Alde Zaharreko
dendari denen partetik*



Kontua da...

Zuhaiztiak, herriaren aberastasun berezia




Imanol
Elias

Historialaria

Behin baino gehiagotan entzun dugu, Azpeititik Zes-tora lurtean oinak jarri gabe joan zitekeela garai batean zuhaitzetatik zintzilikatuz, baina gaur egun zail egiten da pentsatzea ere.

Aitzinan eraikitako baserri edo etxeren bat ikustean harritu ohi gara askotan, dituzten habe sendoak eta ohol zabalak begien aurrean ager-



oSaSuNa

Gozokiak ez du inor mikazten...



Julian Bereziartua

Medikua

Noe-ren eta baita egip-totarren garaian ere, fruitu eta ezitia nahastuz *karamel*oak lortzen zituzten; gauez egin beharreko ibilaldi gogorretarako indarra izateko. Izena ere latinetik dator: *canna melis*, alegia, %95a azukrea da. Era guztietako karameloak aurki daitezke egun, tamaino, zapora eta kolorez. Badakigu, karameloak ez direla beharrezko-

niko masa da. Gustuen arabera, *biguna* eta *gogorra* lortzen dira. Gure artean, honen kontsumoak jaiekin zerikusi handia du. Horrela iraun dezala...

KARAMELOAK

Izena latinetik dator, *canna melis* eta haien %95a azukrea da.

ak; atseginerako bakarrik jaten ditugu. Dirudienez, Europan zortzigarren lekuan gaude gozokizaleen artean, baina ikusten eta estatistiketan irakurtzen dudanagatik, benetan sinestezina gertatzen zait.

Turroia, azukre, ezti eta fruitu lehorrak egosita egi-

Dioteenez, Toledo-ko San Klemente-ko lekaimeek, duela 700 urte, gerrate garaian, herriarentzat zeuzkaten almendrak kaleratu zituzten lapiko haundietan; gero, borra bidez (gaztelaraz *maza*) zanpatuz eta azukrearekin gozatu. Hortik datorkio *mazapan* izena. Mazapanaren osagaiek, zaporea eta energia kontuan izanik, ez dute turroiarekiko alde haundirik.

Denak gozozaleen artean benetako arrakasta du.

SuKaldaRitZa

Erbia saltsan



Erbia garbitu eta 24 ordutan ardotan eduki. Ondoren erbia zatitu eta oliotan frijitu. Frijitu oste-

an, ontzi batera bota eta haragi saldatan egosi. Barazkiak erbia egindako zartagira bota eta barazkie-

motorra

Hotzari aurea hartu

Udazkena eta neguan errepideak arriskutsu bilakatzen dira autoentzat, eurria, lurtean dauden hostoak, izotza eta elurra direla eta. Autoen gurgilen estalkia, matxuratuta edota marrazkia gastatuta badauka, istripu bat izateko arriskua areagotzen da. Beraz, komenigarria da gurgilei estalki berriak jar-



tzen zaizkigunean. Urteetan bizirik izandako zuhaitzen zatiak dira seguraski. Gaur egun, antzekorik aurkitzea, zail egingo litzaiguke herriko lurraldeetan behintzat.

Kontuan izan behar da ordea, zer-nolako arretajartzen zuten garaiko agintariek zuhaitzak landatu eta zaintzeko, gogoan izanik aberastasun ezinhobe zela egurra izatea, etxeak, burdinoletarako ikatza, altzariak egiteko edota sukaldeak berotzeko.

Herrietako agintariek ez

ezik, probintziakoek eman ohi zituzten agindu zorrotzak zuhaitziak zaintzeko eta gutxien ustean bisitaldiak egiten zituzten herrien basoetara. Horrela 1668an Azpeitira probintziako intendente gorenekoa etorri zen, ikusi zuena ontzat hartu bazuen ere, herriko udalak jakinarazi zion, urte bereko ekainaren 2an, azken hamar urtean zenbat zuhaitz landatu ziren herriko

HARITZAK

1668ko jakinarazi zen, azken hamarkadan 20.000 oinkada haritz landatu zirela.

lurraldeetan: 20.000 oinkada haritz gutxienez, beste 34.000 oinkadako lurraldean sartzeko hainbat landare zituela adieraziz. Bada zerbait...

Urte bereko irailaren 29an eginiko batzarraren, ontzat hartuko

zuen beste behin. Udalak bere lurraldeetan, urte bakoitzean mila haritz landatzeko erabakia, agindua betetzen ez bazen, isuna ezarriko zitzaie la agintaritzan egon zirenei.

Juan Manuel Labaka / Hotel Loiola

Erbia ■ Gatza ■ Kipula ■ Porrúa ■ Pipermina ■ Azenarioa ■ Olíoa ■ Ardo beltza.

kin egin. Erbia egosita dagoenean tartera batera atara. Frijitutako barazkiak turmixean pasa eta tartetan dagoen erbiari gainean bota, barazkien saltsa

hori. Bost minututan eduki barazkien saltsa eta erbia egiten. Eta mahaira ateratzeko prest izango dugu orduan.

On egin dagizuela!

tzea. Eta kontu izatea, gurpilaren egoerarekin.

Bestetik, hotza dela eta, autoak ura eramaten duen lekuan, izotzaren kontrako likidoa botatzea gomendatzen da. Ura izotzuz gero, uraren edukiontzia eta autoaren motorra izorratzeko arriskua baitago.

Izotzaren kontrako likidoa,

gutxienez ere, bi urtean behin aldatzea ere komenigarria izaten da. Uraren ontzian, zikina edo lohia egiten baita, beraz ontzia ondo garbitu eta izotzaren kontrako likido berria jartzea komeni da.

Xabier Odriozola

Renault Odriozola

EuSKaRa

Lanien ote nao?

Aitor Amuti

Arantzazu Azpillaga

Euskal Filologian lizentziatuak

Osorraz nahasten ditugu *egon*, *ari*, *ibili* eta *jardun* aditzak. Gazteon akatsa da, nekez entzungo baitiugu adindun bati *lanien dao*, pentsatzen zeok edo antzekorik. *Lanien natxion* esanez gero, askok zorionekotzat hartuko gintuzke, lanean jardun ordez egoteko zortea izateagatik.

Betidanik bereizi izan dira *egon*, batetik, eta *ari izan/ibili/jardun*, bestetik. Egun, gaztearen eraginez, *egon* nagusitu da mugimendua eskatzen duten ekintzetarako ere.

Egon aditza estatikoa da, ez du mugimendurik adierazten. **Non?**

galderari erantzuteko *lanien dao* okerraren ordez *lantokiyein dao* esan beharko genuke.

Zertan? galderari erantzun nahi badiogu,

lanien ai da edo *lanien dabil* esan beharko genuke.

Mugimendua edo ekintza dinamikoa adierazteko *ari izan*,

ibili eta *jardun* erabili behar dira. Hori dela eta, *pentsatzen ai dana* eta *parrandan dabile-na, primeran dabilta*. *Pentsatzen daona* eta *parrandan daona*, ez daude hain ondo.

Beraz, *lanean gogor jardun bazarete*, *egonean egoteko* moduan zaudete.


EGON ADITZA

Egon aditza estatikoa da, ez du inoiz mugimendurik adierazten.

Azpeitia Iruditan lehiaketa



Goiko argazkian sarituak, udal arduradunak eta argazki elkarteko kideak. Ondoko argazkiak, argazki sarituak.



Azpeitia Iruditan II. Lehiaketako bilduma onenaren saria Miguel Iriarte, *Mielito Sarralle*-k jaso zuen, bigarren sariduna Jose Ramon Larrañaga izan zen, hirugarrena Juan Carlos Pozo eta laugarren saria Juan Mari Ibarzabal. Gaztetxoan mailako saria hutsik gelditu zen, deialdiari inork ez baitio erantzun. Hamairu partaide izan dira guztira eta 64 irudi aurkeztu dira.

Udaleko kultura batzordea aurkeztutako 40 argazkiz jabetu da, bere fototeka berritzeko asmoz.

Mendiko rallya

Pasa den azaroaren 5ean, Mendiko V. Argazki Rallya egin zen, Argazki Elkarteak Lagun Onak Mendi Bazkunarekin bat antolatuta. 42 partaidek hartu

Azpeitiko irudiak

Rallyko saridunak ezagutu dira

- ▶ **Azpeitia Iruditan II. Argazki Lehiaketako bilduma onenaren saria Miguel Iriarte Sarralle-k jaso du** ▶ Hamairu partaide izan ziren eta 62 argazki aurkeztu zituzten
- ▶ **Mendiko Rallyko sariduna Iñaki Etxenagusia izan da.**

Nerea Uranga

zuten parte, eta argazkiak atera ahal izan zituzten ibilbidea Zestoako Goltzibar bailaran izan zen.

Jada ezagutzera eman dira, mendiko rallyan parte hartu dutenen argazki lanak. Irabazle Iñaki Etxenagusia azpeitiarraren diapositiba lana izan da. Bigarren saria Zumaiara joan da, Juan Ramon Llavorik jaso ko baitu eta hirugarren sariduna Carlos Mediavilla urretxuarra izan da.

V. Mendiko Argazki Rallyaren sari banaketa eta argazki rallyko aurkeztutako lanen diapositiba emanaldia datorren abenduaren 2an izango da arratsaldeko 19:00etan Enparan Dorretxean. Bertara joaten diren artean ere sorpresatxoaren bat izango dela esan dute antolatzailerak. ■



LARRAÑAGA



JUAN CARLOS DEL POZO


Antxietan erakusketa

San Ferminetako argazkiak erakusgai

Azaroaren 6tik 24ra bitartean, Antxieta Etxean Jose Ramon Larrañaga azpeitiarrak Iruñeko San Fermin festetan ateratako argazkiak izan dira erakusgai, erakusketa Mitxel Remon kazetari iruñearrari eskaini nahi izan dio Jose Ramonek. Honek 1980. hamarkadan eraman zuen lehen aldiz argazki makina Iruñeko jaletara, eta lehen aldiz 1997an egin zuen jaiari buruzko erreportaia oso bat. Erakusketan jaso dituen entzierroko eta txupinazoko argazkiak 97-98-99 eta aurtengoak dira.



Sanferminetako era guztietako argazkiak izan ditu Jose Ramon Larrañagak erakusketan. Hona hemen hiru ale.



agirre

oparidenda
argi tresnak - markogintza

Eros etxerako guztia orain eta ordain urtebete... inolako errekgurik gabe.

Erdikale, 1 Azpeitia

zer dago gaizki, zer faltan, zer soberan?

Adi-adi egin so eskuineko argazkiari, eta bertan zer dagoen gaizki, zer faltan edota zer soberan asmatu behar duzu. Zeure ustez asmatzen baldin baduzu, adierazi akatsa boligrafoz, moztu orrialde hau eta abenduaren 15erako bidali gutun batean helbide honetara: Uztarria Kultur Koordinadora, posta kutxa 227, Azpeitia.

Izen-abizenak:

Helbidea:

Telefonoa:


Argazkiko akatsa:

Irabazleak **Loiola Hotelean** bi lagunentzako afaria izango du, eta UZTARRIAREN elastiko bat ere jasoko du.

aurreko argazkia



...eta soluzioa



irabazlea: **Igor Zabala**



Afaria eta elastikoa ◆

Igor Zabala izan da hamabigarren irabazlea (eskuinean). Sari gisa, bi lagunentzako afaria izan zuen Jai Alai jate-txean (bertakoa ere ageri da argazkian), eta UZTARRIAREN elastiko bat ere jaso zuen.



Manuel Salaberria
BEGIKO SENDAGILEA

BEGIKO MIKROKIRURGIA:

- KATARATA. MIOPIA. HIPERMETROPIA.
- BEIRAKARA-ERRETINAKO GAISOTASUNAK
- Erretina askatze.
- Makulako gaisotasunak.
- Erretinopatia diabetiko konplikaturak.



Esther Usandizaga
FAMILIAKO MEDIKUNTZA
ETA MEDIKU OSTEOPATA

- Azterketak (Analisiak...).
- Arreta jarraia.
- Etxera ere joaten gara.

OSTEOPATIA

- Bizkarrezurraren errehabilitazioa (gerrialdekoa, bizkarraldekoa, zerbikala).
- Gihar eta artikulazioetako arazoak.

Loiola auzoa, 25-B 1.º K
Tfnoa: 943 15 17 52

izan beharreko telefonoak

Erakunde edo toki publikoak

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Nekazal Ganbara	81 46 56
Zerga Bulegoa	81 13 68
Enplegu Batzordea	15 03 00
INEM	15 04 02
Eusko Jaurilaritza	15 16 57
Urkome	81 65 00
Lapatx Zabortegia	81 55 05
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48

Osasuna

Anbulategia	81 51 00
(larrialdiak)	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA	81 38 49
(Donostia)	46 46 22

Komunikabideak

Uztartaria	15 03 58
DV	15 09 94
Herri Irratia	81 44 58
Kaito TB	81 53 35

Alderdi politikoak

EAJ - PNV	81 30 40
HB - EH	15 12 15
EA	81 00 11

Sindikatuak

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

Ikastetxeak

Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesuitinak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Milagrosa	81 63 80
Urola Ikastola	15 02 28

Garraioak

Aldalur	85 27 18
EuskoTren	15 06 77
La Guipuzcoana	85 11 59
Pesa	21 26 99
Piper U. Elkarte	85 25 87
Taxiak	81 13 07

Kultura - Euskara

Euskara Patronatoa	81 19 47
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztartaria	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40

autobusak

JOATEKO

Azpeitia-Zestoa-Donostia

Astegunak: 6:50 (1), 7:50 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2).
Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15.
Igandeak eta jaiegunak: 15:10, 19:15.
Enpresa: La Guipuzcoana.
Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik.

Azpeitia-Eibar-Bilbo

Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30.
Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30.
Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 19:30.
Enpresa: Pesa.

Azpeitia-Bilbo-Leioa

Astegunak: 6:35, 7:20, 13:30.
Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.

Azpeitia-Azkoitia

Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40.
Enpresa: EuskoTren.

Azpeitia-Zestoa-Zumaia

Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05.
Enpresa: EuskoTren.
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.

Azpeitia-Zestoa-Zarautz

Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10.
Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10.
Enpresa: EuskoTren.

Azpeitia-Zumarraga (hospitela)

Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40.
Enpresa: EuskoTren.

Azpeitia-Errezil-Tolosa

Astegunak: 6:55, 13:55.
Asteburuak eta jaiegunak: -
Enpresa: EuskoTren.

ITZULTZEKO

Donostia-Zestoa-Azpeitia

Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30.
Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00.
Igandeak eta jaiegunak: 18:00, 20:00.
Enpresa: La Guipuzcoana.
Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik.

Bilbo-Eibar-Azpeitia

Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00.
Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30.
Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 12:30, 21:00.
Enpresa: Pesa.

Leioa-Bilbo-Azpeitia

Astegunak: 13:00, 14:00, 18:00, 19:00, 20:00.
Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.

Azkoitia-Azpeitia

Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00.
Asteburuak eta jaiegunak: 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55.
Enpresa: EuskoTren.

Zumaia-Zestoa-Azpeitia

Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00.
Asteburuak eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15.
Enpresa: EuskoTren.
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.

Zarautz-Zestoa-Azpeitia

Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00.
Enpresa: EuskoTren.

Zumarraga (hospitela)-Azpeitia

Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30.
Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45.
Enpresa: EuskoTren.

Tolosa-Errezil-Azpeitia

Astegunak: 9:30, 18:30.
Asteburuak eta jaiegunak: -
Enpresa: EuskoTren.

farmaziak gauzez

Abenduaren 4tik 10era

Etxebeste . Jose de Artetxe, 6. 81 59 74.

Abenduaren 11tik 17ra

Gisasola (Azkoitia). Jandonianiz, 5. 85 12 35.

Abenduaren 18tik 24ra

Zulaika. Harzubia Hiribidea, 20. 15 03 34.

Abenduaren 25etik 31ra

Ruiz (Azkoitia). Kale Nagusia, 66. 85 29 89.

Urtarrilaren 1etik 7ra

Beristain. Urbitarte, 3. 81 19 49.

gune publikoen ordutegia

Udaletxea

Astegunak: 9:00 - 13:30.
Larunbatak: 9:00 - 13:00.

Ixpixioa

Egun osoz irekita.

Igerilekua

Astelehenak: 14:00 - 21:00.
Beste astegunak: 7:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

Kiroldegia

Astelehenak: 9:00 - 13:00, 15:00 - 21:00.
Beste astegunak: 15:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

Udal Liburutegia

Astegunak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

abendua

1 (ostirala)

■ IRRATI-LEHIAKETA.

Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki topaketak. Gabriel Arestiri buruzko irrati lehiaketaren finala. Enparan Dorretxea. 16:00etan.

■ ANTZERKIA.

XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Bederen 1, «Agureak ez genuke maitemindu behar». Zelaixo Antzokian. 21:30etan.

2 (larunbata)

■ ANTZERKIA.

XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Zurriola Antzerki taldea, «Gure haurtzaroko lorategia» estreinoa. Zelaixo Antzokian. 21:30etan.

■ ARGAZKILARITZA.

Mendiko V. argazki rallyko sari banaketa eta diapositiba emanaldia. Enparan Dorretxean. 19:00etan.

3 (igandea)

■ MENDIA.

Lagun Onak M.B.k antolatuta Pagoetara helduentzat goiz ibilaldia. Irteera Enparantza Nagusitik 8:30etan.

■ GOIZ ERESIA.

Izarraitz txistulari taldearen goiz eresia. 9:00etan.

■ FUTBOLA.

III. Maila: Lagun Onak-Real Sociedad. 17:00etan. Garmendipen.

8 (ostirala)

■ ANTZERKIA.

XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Txalo, «Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona... eta beste kasu batzuk» estreinoa. Zelaixo Antzokia. 21:30etan.

9 (larunbata)

■ ANTZERKIA.

XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Tantaka, «Ozeanoko pianista». Zelaixo Antzokia. 21:30etan.

10 (igandea)

■ GOIZ ERESIA.

Izarraitz txistulari taldearen goiz eresia. 9:00etan.

■ SASKIBALOIA.

I. Autonomikoa: Jostaldi Kirolak- Santo Tomas Lizeoa. Kiroldegian.

11 (astelehena)

■ ERAKUSKETA.

Urolaldeko Artisten XIX. erakusketa. Antxieta Etxean abendua 29 bitartean. 18:00etatik 20:00tara.

■ IPUIN KONTAKETA.

Ixabel Agirresarobe ipuin kontaketan. 3-4-5 urteko haurrentzat. Udal liburutegian. 18:00etan.

12 (asteartea)

■ MENDI PROIEKZIOA.

Lagun Onak M.B.k antolatuta mendi proiektzio emanaldia. Beñat Arrue arituko da hizlari, Peru 2000 «Alpamayo 5.947- Arpesonraju 6.025- Huascarán 6.768» gaiaren inguruan. Lagun Onak M.B.ren lokalean, Elizkalean. 20:30etan.

13 (asteazkena)

■ MENDI PROIEKZIOA.

Lagun Onak M.B.k antolatuta. Jon Beloki «Dunagiri». Lagun Onak M.B.ren lokalean. 20:30etan.

14 (osteguna)

■ MENDI PROIEKZIOA.

Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Benantxio Iureta «Nepaleko trekkinga». Lagun Onak M.B.ko lokalean. 20:30etan.

■ HEZKUNTZA.

Ikasberri ikastolak Hezkuntza eta Osasuna lemapean III. jardunaldi pedagogikoak antolatu ditu gurasoentzat, «Drogamenpekotasunen prebentzioa familiar». Txus Congilek zuzenduta. Ikasberri ikastolako aretoan. 21:00etan.

15 (ostirala)

■ ANTZERKIA.

Azpeitiko Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak antolatuta, antzerki emanaldia, Euskal presoek eskubideen alde denon konpromisoa areagotuz lelopean. Lakrikun antzerki taldea. Zelaixon. 22:00etan.

16 (larunbata)

■ ANTZERKIA.

XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Trapu Zaharra, «Paketito», kale antzerkia. Enparantza Nagusia. 12:30etan.

■ ANTZERKIA.

XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Azpeitiko Musika Banda, Aretxabaletako eta Julian Barrenetxea Abesbatza eta Itsasi dantza taldea, «Baserria» opera. Zelaixo Antzokia. 21:30etan.

■ ARGAZKILARITZA.


Juan Mari Ibarzabalaren argazkien erakusketa. Azpeitiko jaiei inguruko argazki erreportaia. Abenduaren 30a arte erakusgai izango da. Udaletxe azpiko erakusketa aretoan.

17 (igandea)

■ GOIZ ERESIA.

Izarraitz txistulari taldearen goiz eresia, herriko kaleetan. 9:00etan.





IRAKI ETXENAGUSIA

■ ARGAZKILARITZA

Zer: X. Santo Tomas argazki lehiaketa.

Noiz: Abenduak 21, osteguna.

Tokia: Plazan eta inguruetan.

BARAZKIAK, TXORIXOA ETA TALOA

Santo Tomas jaietan ohi bezala aurten ere argazki lehiaketa izango da, jai herrikoi honen inguruan. Argazki lehiaketa Azpeitiko Argazki Elkarteak antolatua

da, Udaleko Kultura sailaren babesarekin. Argazki lehiaketa baliagarria da, gainera, Argizaiola lehiaketarako. Hau da, lehiaketan saridun gertatzen diren

argazkilanek, Argizaiola lehiaketan parte hartzeko gonbidapena jasoko dute. Urtero bezala, partaidetza aldetik aurtengo ekitaldian ere arrakastaz izango duelakoan daude antolatzaileak. Gaztetxoek mailakoek, hamasei urtez beherakoek, koloretan hiru gai libre hartu beharko dituzte Santo

Tomasetako azoka eta jaiaren inguruan. Helduek berriz, aurrez jarritako hiru gai izan beharko dituzte euren irudietan, bata berduraz plazako azoka, bigarrenik jai giroa eta hirugarrenik berriz, txorixo postuak.

Santomasetan ateratako argazkiak, urtarrilaren 25an aurkeztu beharko dira, sari

banaketa berriz otsailean izango da eta ondoren, argazki lanak ikusteko parada izango da, Antxieta Etxean egingo den erakusketan.

■ FUTBOLA.

III. Maila: Lagun Onak-Zamudio. 17:00etan. Garmendipen.

21 (asteartea)

■ ANTZERKIA.

Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki Topaketan amaiera. Sari banaketa. Udaletxeko Areto Nagusian. 12:30etan.

■ ANTZERKIA.

Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Kale antzerkia, Kukubiltxo. Olazko Amaren Plazatxoan. 16:30etan.

22 (ostirala)

■ JAIOTZA ERAKUSKETA.

Betharram ikastetxeak antolatuta VIII. Jaiotzen Erakusketa. Urtarrilaren 4arte irekita. Abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a itxita izango da. Betharrametako elizan. 17:00etatik 19:00etara.

24 (igandea)

■ GOIZ ERESIA.

Izarraitz txistulari taldearen goiz eresia, herriko kaleetan zehar. 9:00etan.

31 (igandea)

■ MENDIA.

Lagun Onak M.B.k antolatuta Aitzkorri goiz ibilaldia. Irteera Enparantza Nagusitik. 7:00etan.

UZTARRIAREN oharra taldeei: bidali zeuon ekitaldion berri honako helbide batera: 227 posta kutxa (Azpeitia), edo Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezberra.

abendua

Dionisio Perez

Naximentu
montatzen
duna. 1967-

68yen hasi
zan Parrokiko
naximentue
montatzen,
lau anai
ibili izan
die. Azken
astietan
buru-belarri
dabil Iñigo
anayekin
batea.



NEREA URANGA

"NAXIMENTU DANA UREN BIDEZ MOITZEN DA, ERROTAN BIDEZ"

► **Noiztik ai zea naximientue monta-
tze hontan?**

30 bat urte eo geyo damazkit.
Hamalau urtekin hasi nintzen, 67-68
inguru hortan.

► **Nolatan?**

Beti parroki zaliek izan
gea etxien. Lehenengo pa-
rrokiko sakristauk monta-
tzen zuen. Geo, operauteta
zaola ta Krispin Agirre zana
ta Inaxito Agirre hasi zien
montatzen, ta haiekin batea
gu. Orduen Frantziskana-
tako 3. ordenako grupo
batek hartu zuen, gu tartien. Talde
hori galdu ein zan. Gu mutil kozko-
rrak giñela hasi giñen, atte're beti
parrokiyen sartuta ibili ohi zan.

► **Beste anayek, zure anayek'e ibili
izan die naximentue montatzen,
ezta hala?**

Bai, lau anai ibili izen gea naximen-
tue montatzen. Danea, sei anai-arre-
ba gea.

*"Periko alde batea
utzite, Xerraiko
Kontxesi da pertso-
naje mattiena,
hariye eiten daon
emakumie"*

► **Aurten, bi anai ai zeate.**

Bai, ni ta Iñigo.

► **Gañea beñe baño beran-
duo, ezta?**

Bateatik eo bestiatik atzerau
eiñ da. Baño, igual beñe
baño lenuo bukauko deu.

► **Ze berezitasun du naxi-
mentu honek?**

Funtzionatzeko sistemie bea da
bereziye. Dana urekin mugitzen da,
errotan bidez, ta hori ez dao alda-
tzeik. Aldatzen hasiko bagiñe, urtarri-

lien-eo hasi berko genuke
lanien. Egune ta gaba, oiñ
50 urteko sistemiekin eitea.

► **Zenbat urte dauzke naxi-
mentuek?**

Guk 108 urte botatzen dizki-
you.

► **Ta zein pertsonaje dezue
mattiena?**

Periko Motxala alde batea
utzite —ezagunena bea bai-
ta— Xerraiko Kontxesi, iye
desaindute dao, baño...
Emakume bat bazan, Ma-
dalenan hariye eiten jardut-
ten zuna, ta irudi hori're hala
dao.

► **Beste pertsonaje ezagu-
nik?**

Kale, garai batien Azkoititik
Azpeitire transportien ibil-
tzen zan. Naximentuen, ka-

rruen ibiltzen danai jendiek hala
hotsein diyo. Azkenien jendiek beak
jartzen dizkiyo izena irudiyei.

► **Zenbat pertsonaje daude naximen-
tuen?**

Buff, sekula ez ditugu kontau.

► **Ta zenbat ardi?**

Beste hainbeste. Behi eruek beste
dozena bat.

► **Berritzen al die irudiyek?**

Bai, urtero berriyek erosten ditugu.

► **Ta planoik'eo ibiltzen al dezue?**

Planue buruen daukeu. Gauze
batzuk, beletie, karrue, Periko... ezin
die alda. Baño mendiye- ta gure
eran jartzen ditugu. ■

Nerea Uranga

MUEBLE MACIZO

LASAO[®]

EGURREZKO ALTZARIAK

Gaztainondo egurrezko altzariak
zahar itxurako patina
eta erle argizariz bukatuak

LASAO MUEBLES, S.L.

Pol. Ind. de Lasao - Apdo. 124 - 20730 AZPEITIA

Tfno.: 943 15 11 82 - Faxe: 943 15 10 98

E-mail: informacion@lasao.com

www.lasao.com



Argi jokatu zure publizitatearekin



Egin publizitatea uztarrian
azpeitiko herri aldizkarian

Tel.: 943 15 03 58



RENAULT

- Auto berriak
- Bigarren eskuko autoak
- Mekanika tailerra,
Elektrizitatea, Pintura eta
Karrozeria
- 24 orduko grua zerbitzua
TELEFONOA: 689 86 88 61



ZATOZ ETA IKUS!!!

TALLERES ODRIOSOLA, S.L. • Tels.: 943 81 08 08 - 81 08 12 • Fax: 943 81 18 10 • 20730 LOIOLA - AZPEITIA

gabon hauetako erregaloik mundialena



Babesa
gazte moda

ondo pasau festak!

Xanjuandei auzun gatzauden!

Tel.: 943 15 13 69 ♦ Urbitarte, 9 ♦ AZPEITIA

Babesa Babesa Babesa Babesa Babesa Babesa